| 2017KO OTSAILAREN 22AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA. | ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 22 DE FEBRERO DE 2017. |
|---|---|
| ============================ | ============================ |
| BERTARATUAK | ASISTENTES |
| LEHENDAKARIA | PRESIDENTE |

Imanol Landa Jauregi jn.

| ALKATEORDEAK | TENIENTES DE ALCALDE |
|---|---|

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ-PNV)
Joseba Arregui Martínez (EAJ-PNV)
José Luis Landa Arteche (PSE-EE (PSOE))

| ZINEGOTZIAK | C O N C E J A L E S |
|---|---|

Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ/PNV)
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)
Amaia Agirre Muñoa (EAJ/PNV)
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ/PNV)
Iñaki Gamero Delgado (PP)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP)
Raquel González Díez-Andino (PP)
Miguel Ibabe Botella (PP)
Susana De Cos Yañez (PP)
Susana Andollo González (GUK)
Francisco Enrique Prada Olleta (GUK)
Enrique Olaso García (GUK)
Oier Iturralde Fernández (EH BILDU)
Maite Arraiza Aramendia (EH BILDU)
Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)

Nerea Guijarrubia García (EH BILDU)
Teresa Escalante Reina (PSE-EE (PSOE))
Santiago Sainz Robles (C'S)

| **IDAZKARI NAGUSIA** | **SECRETARIO GENERAL** |
|---|---|

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako arratsaldeko lauretan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontu-hartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las dieciséis horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Paula Amieva zinegotziak ezin izan du etorri, gaixorik dagoelako.

La concejala Paula Amieva justifica su ausencia por enfermedad

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**17.- 2017KO URTARRILAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.**

**17.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 25 DE ENERO DE 2017.**

2017ko urtarrilaren 25ean Getxoko Udalbatzak egindako ohiko bilkuraren akta aho batez onestea.

Se aprobó por unanimidad el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 25 de enero de 2017.

**ALKATETZA**

**ALCALDÍA**

**18.- BOZERAMAILEEN BATZORDEAREN ERABAKIAREN BERRI EMATEA: URTARRILAREN 27A, HOLOKAUSTOAREN NAZIOARTEKO EGUNA.**

Adierazpena irakurri ondoren, Oier Iturraldek adierazi du azken osoko bilkuran aurkeztu zutela mozio bat eta gero erretiratu zutela alkateak konpromiso hartu zuela Bozeramaile Batzordea deitzeko, eta EH Bilduk akordioa lortu nahi zuelako. Deialdia ez zen Holokaustoaren Egunean egin, eta uste du alkateak ez zuela ahal zuen guztia egin egun horrekin kointziditzeko (urriaren 27a). Adierazi du, era berean, Bozeramaileen Batzordean, herritarren izenak ez sartzeko, PPk galdetu zuela nondik lortu zen informazio hori, eta erantzun die Asociación para la Recuperación de la Memoria Histórica elkartetik datorrela.

Enrique Olasok hitza hartu, eta nabarmendu du kontu txikiak gorabehera lortutako akordioaren garrantzia, eta berretsi du memoriaren balioa azpimarratzeko beharra.

Alkateak azpimarratu du Bozeramaile Batzordean emandako erabakia, eta kritikatu du EH Bilduk ezberdintasunak nabarmentzeko duen zaletasuna. Gogorarazi du Osoko Bilkuraren aurrean hartutako konpromisoa izan zela hurrengo egunean egitea deialdia, eta hura egin zela, astelehenera arte egin ezin izan bazen ere.

Iñaki Gamerok adierazi du PPk adierazia zuela Bozeramaile Batzordean borondatea zuela akordioa lortzeko, eta horregatik atxiki zitzaizkiola talde

**18.- DACIÓN DE CUENTA DEL ACUERDO DE JUNTA DE PORTAVOCES SOBRE EL 27 DE ENERO: DÍA INTERNACIONAL DEL HOLOCAUSTO.**

Tras dar lectura a la declaración Oier Iturralde manifiesta que en el último Pleno presentaron una moción que retiraron porque el Alcalde se comprometió a convocar una Junta de Portavoces y EH Bildu buscaba un acuerdo. La convocatoria no se celebró el día del holocausto y opina que el Alcalde no hizo lo posible para que coincidiera con dicho día, que es el 27 de octubre. Indica también que el PP en la Junta de Portavoces, como justificación para no incluir los nombres de los vecinos, preguntó esa información de dónde se había obtenido y les contesta que viene de la Asociación para la Recuperación de la Memoria Histórica.

Enrique Olaso inteviene para poner en valor el acuerdo alcanzado por encima de pequeñas cuestiones e insiste en la necesidad de realzar el valor de la memoria.

El Alcalde subraya el acuerdo adoptado en la Junta de Portavoces y critica la afición de EH Bildu en resaltar las diferencias. Recuerda que su compromiso ante el Pleno fue la de convocar al día siguiente, convocatoria que se realizó, aunque la celebración no se pudo hacerse hasta eel lunes.

Iñaki Gamero manifiesta que el PP ya indicó en la Junta de Portavoces su voluntad de llegar a un acuerdo y por eso de adhirieron a los acuerdos que de

politikoek Batzar Nagusietan eta Eusko Legebiltzarrean aho batez emandako erabakiei.

forma unánime habían adoptado los grupos políticos en Juntas Generales y en el Parlamento Vasco.

Alkatetzak proposamena eginda, jakitun egon, Bozeramaileen Batzarrak erabakita onetsitako adierazpen instituzionalaz.

A propuesta de la Alcaldía quedaron enterados de la siguiente declaración institucional adoptada por la Junta de Portavoces,

"2005eko azaroaren 1ean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 60/7 ebazpena onartu zuen, eta haren bidez erabaki zuen urtarrilaren 27a Holokaustoaren Oroipeneko Nazioarteko Eguna izango zela. Europako Parlamentuak ere onetsi zuen urtarrilaren 27a Holokaustoaren Oroipeneko Europako Eguna izatea, 1954 urteko egun hartan askatu baitzen Auschwitz-Birkenau kontzentrazio esparrua.

"El 1 de noviembre de 2005, la Asamblea General de la ONU aprobó la resolución 60/7, en la que designaba el día 27 de enero como Día Internacional de Conmemoración en Memoria de las Víctimas del Holocausto. Así mismo, el Parlamento Europeo aprobó declarar el 27 de enero como Día Europeo de la Memoria del Holocausto, fecha en la que durante 1945 fue liberado el campo de Auschwitz-Birkenau.

Auschwitz historia garaikidean gizakiak egin duen ankerkeria handienaren sinbolo bilakatu den arren, Holokausto izenarekin ezagututakoa Europako lurralde osoan eman zen. 6 milioi judutarrekin batera milaka pertsona erail ziren arrazoi etniko,erlijioso,politiko,ideologikoengatik, edo desgaitasun fisikoa edo burukoa izateagatik, edo beren orientazio sexualagatik. Biktima horien guztien artean nazien kontra borrokatu ziren pertsonak ere zeuden: frantziarrak, espainiarrak ,kataluniarrak eta euskaldunak, sarraski esparru haietan III Reich-ak eragin zuen erokeria pairatu zutenak.

Aunque Auschwitz se convirtió en símbolo de la mayor atrocidad humana que se haya dado en la edad contemporánea, el conocido como Holocausto se extendió por todo el territorio europeo. Junto a 6 millones de judíos, fueron asesinadas personas por motivos étnicos, religiosos, políticos, ideológicos, por ser discapacitados físicos o mentales o por su orientación sexual . Entre todas estas víctimas, también se encontraban personas combatientes antinazis, francesas, españolas, catalanas y vascas que sufrieron en esos campos de exterminio la locura desatada por el III Reich.

Mauthausen, Gusen, Dachau, Buchenwald, Ravensbrück eta Auschwitz bezalako beste hainbat sarraski esparruk, besteak beste, Bergen Belsen, Flossenbürg, Natzweiler, Neuengamme, Sttuthof, Sachsenhausen, Gross-Rosen, Aurigny, Guernesey eta Neu Bremm izenekoek

Mauthausen, Gusen, Dachau, Buchenwald, Ravensbrück y otros centros de exterminio como el propio Auschwitz, Bergen Belsen, Flossenbürg, Natzweiler, Neuengamme, Sttuthof, Sachsenhausen, Gross-Rosen, Aurigny, Guernesey, Neu Bremm … conocieron a cerca de 10.000 exiliados que en su

frankismoaren jazarpenetik ihesi Frantziar lurraldean babesa bilatu zuten 10.000 erbesteratu hartu zituzten, eta II. Mundu Gerra piztearekin batera sarraski esparru horietara eramanak izan ziren. Horien erdiak esparruetan hil ziren.

huida de la persecución franquista buscaron refugio en territorio francés y con el estallido de la II Guerra Mundial fueron trasladados a esos centros de exterminio. Más de la mitad murieron en ellos.

Horregatik guztiagatik, Getxoko udalak Holokaustoaren Oroipeneko Nazioarteko Egun honetan, nazien jazarpena pairatu zuten pertsona guztiak gogoratu eta omendu nahi ditu eta, bereziki, sufrikario hori bizi eta nazi esparruen ankerkeria ezagutu zuten 200 euskaldunak, horietako 70etik gora bizkaitarrak. Batzuek askatasuna berreskuratu zuten arren, beste hainbat esparru haietan hil ziren.

Por este motivo, el ayuntamiento de Getxo, en este día internacional del Holocausto, queremos recordar y homenajear a todas las víctimas que sufrieron la persecución nazi, y particularmente a los cerca de 200 vascos, más de 70 de ellos, vizcaínos, que conocieron la crueldad de los campos nazis. Algunos recobraron su libertad, otros, sin embargo, perecieron en los campos.

Bihoakie horiei guztiei gure aintzatespena eta oroimena.

Vaya nuestro reconocimiento y recuerdo para todos ellos y ellas.

ADIERAZPENA

DECLARACIÓN

1. Getxoko udalak, gizarte honen adierazpen argi eta irmo gisa, erabat gaitzesten du nazien erregimenaren aldetik adin guztietako milioika pertsonen jazarpena eta erailketa sistematikoa eragin zuen Holokaustoaren ankerkeria.

1. El ayuntamiento de Getxo condena, como expresión clara de esta sociedad, el horror y la crueldad del Holocausto que causó la persecución y el asesinato sistemático de millones de personas de todas las edades por parte del régimen nazi.

2. Getxoko udalak gaur gogoratu eta omendu nahi ditu Holokaustoaren eta naziek eragindako sarraskiaren biktima guztiak eta, bereziki, haien artean egon ziren euskaldun, bizkaitarrak eta getxotarrak."

2. El ayuntamiento de Getxo desea en este día recordar y honrar a todas aquellas personas víctimas del Holocausto y del exterminio nazi, personas entre las que también se encontraban vascas, vizcaínas y getxotarras."

**LEHENDAKARITZA ETA GIZARTE ZERBITZUAK**

**PRESIDENCIA Y SERVICIOS SOCIALES**

**19.- HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUETAKO, ETA**

**19. MODIFICACIÓN DE LA COMPOSICIÓN DE LA COMISIÓN**

**INGURUMENEKO INFORMAZIO BATZORDEA ALDATZEA, GUK UDAL TALDE POLITIKOAREN OSAERAREN ALDETIK.**

Lehendakaritza eta Gizarte Zerbitzuen Informazio Batzordeak proposatuta, aho batez ondorengoa erabaki da:

Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, eta Ingurumeneko informazio batzordearen osaera aldatzea, GUK talde politikoari dagokionez. Talde horretako zinegotzi hauek izango dira batzordeko kideak:

**INFORMATIVA DE URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE EN LO QUE AL GRUPO POLÍTICO MUNICIPAL GUK SE REFIERE.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Presidencia y Servicios Sociales, por unanimidad se acordó:

Modificar la composición de las Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios y Medio Ambiente, en lo que al grupo político municipal GUK se refiere, quedando la misma integrada por los siguientes concejales de ese grupo:

| **Titularrak/Titulares** | **Ordezkoak/Suplentes** |
|---|---|
| **Francisco Enrique Prada Olleta** | |
| **Susana Andollo Gonzalez** | **Enrique Olaso García** |
| **Paula Amieva Clemente** | |

**20.- KULTURAKO ETXEA TOKIKO ERAKUNDE AUTONOMOKO ARTEZKARITZA KONTSEILUA ALDATZEA, GUK UDAL TALDE POLITIKOAREN OSAERAREN ALDETIK.**

Lehendakaritza eta Gizarte Zerbitzuen Informazio Batzordeak proposatuta, aho batez ondorengoa erabaki da:

KULTUR ETXEA tokiko erakunde autonomoko Artezkaritza Kontseiluaren osaera aldatuko da, GUK udal taldeari dagokionez. Talde horretako zinegotzi hauek izango dira Kontseiluko kideak:

**20. MODIFICACIÓN DEL CONSEJO RECTOR DEL ORGANISMO AUTÓNOMO LOCAL AULA DE CULTURA EN LO QUE AL GRUPO POLÍTICO MUNICIPAL GUK SE REFIERE.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Presidencia y Servicios Sociales, por unanimidad se acordó:

Modificar la composición del Consejo Rector del Organismo Autónomo Local "AULA DE CULTURA" en lo que al grupo municipal GUK se refiere, quedando el mismo integrado por los siguientes concejales de ese grupo :

| **Titularrak/Titulares** | **Ordezkoak/Suplentes** |
|---|---|
| Paula Amieva Clemente | Enrique Olaso García |

Francisco Enrique Prada Olleta
Susana Andollo González

**21.- JESUSEN BIHOTZ SAKRATUA UDAL EGOITZAKO ARTEZKARITZA KONTSEILUA ALDATZEA, GUK UDAL TALDE POLITIKOAREN OSAERAREN ALDETIK.**

Lehendakaritza eta Gizarte Zerbitzuen Informazio Batzordeak proposatuta, aho batez ondorengoa erabaki da:

JESUSEN BIHOTZAREN UDAL EGOITZA tokiko erakunde autonomoko Artezkaritza Kontseiluaren osaera aldatuko da, GUK udal taldeari dagokionez. Talde horretako zinegotzi hauek izango dira Kontseiluko kideak:

**21. MODIFICACIÓN DEL CONSEJO RECTOR DE LA RESIDENCIA MUNICIPAL SAGRADO CORAZÓN DE JESÚS EN LO QUE AL GRUPO POLÍTICO MUNICIPAL GUK SE REFIERE.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Presidencia y Servicios Sociales, por unanimidad se acordó:

Modificar la composición del Consejo Rector del Organismo Autónomo Local "RESIDENCIA MUNICIPAL SAGRADO CORAZÓN DE JESÚS" en lo que al grupo municipal GUK se refiere, quedando el mismo integrado por los siguientes concejales de ese grupo:

**Titularrak/Titulares**

Susana Andollo González
Paula Amieva Clemente
Enrique Olaso García

**Ordezkoak/Suplentes**

Francisco Enrique Prada Olleta

**22.- BERDINTASUN PLANA, 4.A, ONESTEA.**

Proposamena irakurri ostean, Keltse Eigurenek hitza hartu, eta esan du Emakume eta Gizonen berdintasunerako IV. Plana aurkeztuko dela. Adierazi du 1999az geroztik jorratzen ari direla berdintasun politikak zenbait planen bidez. Plan hau egiteko, lehenago diagnostiko bat egin da, zeinak aintzat hartu baitu banakoekin eta emakumeen elkarteekin egindako parte hartzeko tailerretan bildutako informazioa, eta diagnostikoarekin bat etorri dela Berdintasun Kontseilua. Azterketa

**22. APROBACIÓN DEL IV PLAN DE IGUALDAD.**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Keltse Eiguren para manifestar que se presenta el IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Getxo. Indica que desde 1999 a través de distintos planes se viene trabajando en las políticas de igualdad. Este plan se ha elaborado tras la realización de un diagnóstico que contempla información recogida con talleres participativos con personas y asociaciones de mujeres y posteriormente ese diagnóstico ha sido compartido por el Consejo de Igualdad.

errealitatearen isla da, eta IV. planeko jarduketetarako abiapuntua. Metodologia berarekin eta talde motorraren, udalaren arlo guztietako hainbat langileren eta Berdintasun Kontseiluaren parte-hartzearekin idatzi da plana, eta orain Emakunde horren txostena egiten ari da. Bide-orria izan nahi du zeharkako berdintasun-politikarako. Ardatz estrategikoak zehaztu ditu, eta esan du guztira 99 neurri biltzen dituzten zenbait programa dituela, horietako bakoitzak dauzkala arduradun bat eta jarduteko kronograma bat. Eragin ekonomikoa aurrekontuetan ikusiko da, eta irizpideak aurreikusten ditu nola gauzatu den baloratzeko. Berdintasun handiagoa duen eta beraz bidezkoagoa den gizarte baten alde lan egiteko tresna izan nahi du.

El estudio es una foto real y punto de partida para las acciones del IV plan. Con la misma metodología y con participación del grupo motor, personal de todas las áreas del ayuntamiento y el Consejo de Igualdad se ha redactado este plan que ha sido informado por Emakunde. Pretende ser la hoja de ruta para la política transversal de igualdad. Detalla los ejes estratégicos, que cuenta con los diferentes programas que recogen un total de 99 medidas, que cada una de las cuales tiene asignado un responsable y un cronograma de actuación. El reflejo económico se verá en los presupuestos y también contempla criterios de valoración de su realización. Pretende ser una herramienta para trabajar por una sociedad más igualitaria y por tanto más justa.

Susana Andollok adierazi du GUK taldearen iritziz balioak aldatu gabe ez dela gizarte-eraldaketarik egongo, eta horretarako garatu behar direla balio berbera, berdintasunean aurrera egin ahal izateko. Imajinario kolektiboan errotutako hainbat balio kendu beharra dago, eta erronka horri ekin behar zaio. Beraren ustez, kontzientziazio-kanpainak egin behar dira genero-berdintasunean aurrera egiteko. Azpimarratu du beharrezkoa dela lehen mailetatik jardutea hezkuntza-arloan, baita udalaren langileak prestatzea ere. Guztiak animatzen ditu Getxoko Emakumeen Etxearen proiektuan parte hartzen, emakumeen espazio propioa baita. Baikor izan nahi dute plana garatzeko, eta horregatik aldeko botoa emango diote.

Susana Andollo indica que GUK estima que sin cambio de valores no va a haber una transformación social y para eso hay que desarrollar nuevos valores que permitan avanzar en la igualdad. Es necesario eliminar valores anclados en el imaginario colectivo y este es un reto que hay que abodar. Opina que hay que promover campañas de concienciación para avanzar en la igualdad de género. Resalta la necesidad de actuar en el ámbito educativo desde los primeros niveles así como también formar a los empleados municipales. Anima a todos a participar en el proyecto de la Casa de la Mujer de Getxo como espacio propio de mujeres. Quieren ser optimismtas para desarrollar el plan y por eso lo aprobaran.

Nerea Guijarrubiak adierazi du EH Bilduk ekarpen asko proposatu dizkiola planari, eta horietako batzuk onartu

Nerea Guijarrubia indica que EH Bildu ha planteado muchas aportaciones al plan, algunas de las cuales han sido

direla. Aldeko botoa emango dute, tresna eraginkorra izan baitaiteke berdintasunean aurrera egiteko. Zehaztu du paperean dena sartzen den arren beharrezkoa dela baliabideak ematea. Konfiantza dute udal-profesionalengan, baina berretsi dute baliabide gehiago eman behar zaizkiola Berdintasun Unitateari eta ekipamendu gehiago udalerriari; eta uste du Emakumeen Etxea proiektu garrantzitsua dela. Adierazi du euren proposamen batzuk ez direla onartu, esaterako Hiri-antolamenduko Plan Orokorrari buruzkoa. Haien iritziz, udal-jardueraren arlo guztietan ikuspegi feminista egon behar du eredu patriarkalari aurre egiteko. Faltan nabaritzen dute plana integralagoa ez izatea. Amaitzeko, esan du planaren jarraipena egingo dutela ebaluatzeko nola betetzen den.

asumidas. Van a votar a favor ya que puede ser un instrumento eficaz para avanzar en la igualdad. Indica que el papel aguanta todo pero hace falta dotar de medios. Confían en los profesionales municipales pero insiste en que hay que dotar de más medios a la Unidad de Igualdad así como dotar de equipamientos al municipio y cree que la Casa de la Mujer es un proyecto importante. Manifiesta que tienen propuestas que no han sido admitidas como han sido, la referida al Plan General de Ordenación Urbana. Estima que en todos los aspectos de la actuación municipal ha de existir una visión feminista para contrarrestar el modelo patriarcal. Echan en falta un plan más integral. Finaliza indicando que realizarán un seguimiento del plan para evaluar su cumplimiento.

Ondorioz, Lehendakaritza eta Gizarte Zerbitzuen Informazio Batzordeak proposatuta, aho batez ondorengoa erabaki da:

En consecuencia, y a propuesta de la Comisión Informativa de Presidencia y Servicios, por unanimidad se acordó:

Erantsitako dokumentuaren arabera, Getxoko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana onestea.

Aprobar el IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en Getxo, según documento anexo.

Jarraian, alkateak hitza hartu du eta nabarmendu du lortutako adostasuna, eta eskertu du parte hartu duten alde guztiek egindako lana; zorionak eman, eta beren lanarekin jarraitzeko eskatu die.

Interviene a continuación el Alcalde para recalcar la unanimidad obtenida y agradecer la labor realizada por todas las partes intervinientes, a los que felicita y les pide que continúen con su labor.

**OGASUNA, KONTUAK, EKONOMIA-SUSTAPENA, GIZA BALIABIDEAK, HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA EUSKARA**

**HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS, EDUCACIÓN, JUVENTUD Y EUSKERA**

**23.- UDAL-DIRUZAINTZAREN**

**23.- DACIÓN DE CUENTA DEL**

**HIRUHILEKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA, 15/2010 LEGEAREN LAUGARREN ARTIKULUAN XEDATUTAKOA BETE BEHARREZ (2016KO 3. HIRUHILEKOA).**

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

IT 001-2017 Diruzaintzako Txostenaren edukiaren jakitun egon; txosten hori betebeharrak ordaintzeko legezko epeak betetzeari buruzkoa da.

**INFORME TRIMESTRAL DE TESORERIA EN CUMPLIMIENTO DE LO DISPUESTO EN EL ARTÍCULO CUARTO DE LA LEY 15/2010 (4º TRIMESTRE DE 2016).**

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Quedaron enterados del contenido del Informe de Tesorería IT 001-2017 sobre el cumplimiento de los plazos legales para el pago de obligaciones.

**24.- HAINBAT DEKRETUREN BERRI EMATEA: TRANSFERENTZIAZ BALIATURIK AURREKONTUA ALDARAZI.**

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

Transferentziaren bidezko aurrekontu-aldaketaren Dekretu hauek jakitun egon:

270/2017 zenbakidun Dekretua 10.000,00 euroko zenbatekoarekin. 2017/01 kreditu-transferentzia. Emakumeek historiari egindako ekarpenei buruzko beka.

313/2017 zenbakidun Dekretua 2.063,68 euroko zenbatekoarekin. 2017/02 kreditu-transferentzia. Enpresentzako diru-laguntzak.

**24.- DACIÓN DE CUENTA DE DIVERSOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Quedaron enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante el uso de transferencias:

Decreto nº 270/2017 por un importe de 10.000,00 euros. Transferencia de credito 2017/01. Beca acerca de las aportaciones hechas a la historia por las mujeres.

Decreto nº 313/2017 por un importe de 2.063,68 euros. Transferencia de credito 2017/02. Ayudas a empresas.

**HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK ETA INGURUMENA**

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE**

**25.- ANDIKOETXE BANAKETA-ARLOAN DISEINATUTAKO ERAIKINARENTZAT (ZK. 1) EGINDAKO XEHETASUNEZKO AZTERKETA BEHIN BETIKO ONESTEA.**

Proposamena irakurri ondoren, Maite Arraizak hitza hartu, eta esan du xehetasun-azterketa horren kontra bozkatuko dutela etxebizitza asko eraikitzeko aukera ematen duelako etxebizitza sozialik aurreikusi gabe. Uste dute HAPO berriak ekintza sozialagoak egiteko aukera emango duela. Kritikatu du berrikuste-prozesua atzeratzen ari dela. Gobernu-taldeak, kontratua amaitzen ari zela bazekien ere, ez zuela berehalakoan lizitatu kontratu berria, eta geroago lizitatu arren, adjudikatu gabe geratu da, eta horrek areago atzeratzen du prozesua. Beraren ustez, gobernu-taldeak ez du agintaldi honetan onartu nahi berrikuspena, eta horregatik neurri puntualen bidez jarduten du, eta EH Bildu ez dator bat politika horrekin.

Proposamena bozkatu da, eta onartu da aldeko 11 boto lortu dituelako (EAJ eta PSE-EE), kontrako lau boto (EH Bildu), eta 9 abstentzio (PP, GUK eta Ciudadanos).

Ondorioz, Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumen eta Ondare eta Etxebizitzako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

LEHENENGOA.-

I.- Behin betiko onestea DOMINGO GUZMÁN ARROYO jaunak, GRUPO COSIMET INMOBILIARIA, SL enpresaren izenean eta berau

**25.- APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE PARA LA EDIFICACIÓN DISEÑADA Nº 1 DEL AREA DE REPARTO Nº 28- "ANDIKOETXE".**

Tras dar lectura a la propuesta interviene Maite Arraiza para indicar que votarán en contra de este Estudio de Detalle porque facilita construir muchas viviendas sin que se contemple ninguna vivienda social. Estiman que un nuevo PGOU posibilitará acciones más sociales. Critica que el proceso de revisión se está retrasando. Que el equipo de gobierno, pese a saber que finalizaba el contrato, no licitó de manera inmediata el nuevo contrato y pese a licitar más tarde éste ha quedado desierto, lo que aplaza aún más todavía el proceso. Estima que el equipo de gobierno no tiene voluntad de aprobar la revisión en la presente legislatura, por eso actúa mediante medidas puntuales, política que EH Bildu no comparte.

Sometida la propuesta a votación es aprobada al obtener 11 votos a favor, PNV, PSE-EE; 4 votos en contra, EH Bildu; 9 abstenciones, PP, GUK, Ciudadanos.

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios, Medio Ambiente y Patrimonio y Vivienda, por mayoría se acordó:

PRIMERO.-

I.- Aprobar, con carácter definitivo, el Estudio de Detalle presentado por D. DOMINGO GUZMÁN ARROYO, en nombre y representación de la

ordezkatuz aurkeztutako Xehetasun Azterlana "Andikoetxe" izeneko 28. banaketa aldeko 1. zenbakidun eraikinerako. Hala, behin-behineko onespenean adierazitako zehaztasunak bete beharko dira.

mercantil GRUPO COSIMET INMOBILIARIA, S.L., para la edificación diseñada nº 1 del Area de Reparto nº 28-"Andikoetxe", debiéndose tener en cuenta las matizaciones apuntadas a la aprobación inicial.

II.- Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

II.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia

III.- Interesdunei jakinaraztea, egokiak diren errekurtsoak adieraziz.

III.- Notificarlo a los interesados con indicación de los recursos procedentes.

BIGARRENA.-Alkatetza-Udalburutzari ahalmena emango zaio erabaki hauek burutzeko behar diren ebazpenak eman ditzan.

SEGUNDO.- Facultar a la Alcaldía Presidencia para la adopción de cuantas resoluciones sean necesarias para la ejecución de estos acuerdos.

**26.- 8-ROMO BANAKETA-ARLOKO KALAMUA KALEKO 11KO ERAIKINA ORDEZTEARREN EGINDAKO XEHETASUNEZKO AZTERKETA BEHIN BETIKO ONESTEA.**

**26.- APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE PARA LA SUSTITUCIÓN DEL EDIFICIO SITO EN EL Nº 11 DE C/ KALAMUA DEL AREA DE REPARTO Nº 8- "ROMO".**

Proposamena irakurri ondoren, bozkatu egin da, eta honako emaitza hau irten da: 11 boto alde (EAJ eta PSE-EE), 4 boto kontra (EH Bildu), eta 9 abstentzio (PP, GUK eta Ciudadanos).

Tras darse lectura a la propuesta se somete a votación obteniendo el siguiente resultado: 11 votos a favor, PNV, PSE-EE; 4 votos en contra, EH Bildu; 9 abstenciones, PP, GUK, Ciudadanos.

Ondorioz, Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumen eta Ondare eta Etxebizitzako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios, Medio Ambiente y Patrimonio y Vivienda, por mayoría se aprobó:

LEHENENGOA.-

PRIMERO.-

I.- Behin betiko onestea ADELA LAMEIRAS DE SANTOS andreak, A4 ARQUITECTOS enpresaren izenean eta berau ordezkatuz aurkeztutako Xehetasun Azterlana, "Romo" izeneko

I.- Aprobar, con carácter definitivo, el Estudio de Detalle presentado por DÑA. ADELA LAMEIRAS DE SANTOS, en nombre y representación de A4 ARQUITECTOS, para la

8. zenbakidun banaketa-aldean dagoen Kalamua kaleko 11. zenbakiko eraikina ordezkatzeari buruzkoa. Hala, behin-behineko onespenean adierazitako zehaztasunak bete beharko dira.

sustitución del edificio sito en el nº 11 de la calle Kalamua, en el Area de Reparto nº 8-"Romo", debiéndose tener en cuenta las matizaciones apuntadas a la aprobación inicial.

II.- Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

II.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia.

III.- Interesdunei jakinaraztea, egokiak diren errekurtsoak adieraziz.

III.- Notificarlo a los interesados con indicación de los recursos procedentes.

BIGARRENA.- Alkatetza-Udalburutzari ahalmena emango zaio erabaki hauek burutzeko behar diren ebazpenak eman ditzan.

SEGUNDO.- Facultar a la Alcaldía Presidencia para la adopción de cuantas resoluciones sean necesarias para la ejecución de estos acuerdos.

Alkateak jakinarazi du presako mozio bat dagoela, Ciudadanosek aurkeztua, Auzitegi Konstituzionalak hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari buruz emandako epaiaz, eta beraz horren presazko izaeraz erabaki behar dela.

El Alcalde indica que hay una moción de urgencia presentada por Ciudadanos sobre la Sentencia del Tribunal Consititucioinal relativa al impuesto que grava el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana, por lo que procede debatir acerca de su urgencia.

Santiago Ruizek premiazkotasuna honela justifikatu du: gai-zerrenda egiteko epea bukatu arte ez dela ezagutu Auzitegi Konstituzionalaren epaia, zeinak baliogabetu baititu hiri-lurren balioaren gaineko zerga arautzen duen Gipuzkoako Foru Arauaren artikulu batzuk, eta presazko mozio moduan aurkeztu du beraren ustez lehenbailehen jokatu behar delako aurre egin ahal izateko herritarrek aurkez litzaketen erreklamazioei.

Santiago Sainz jusitifca la urgencia en que la Sentencia del Tribunal Constitucional que anula determinados artículos de la Norma Foral de Gipuzkoa, que regula el impuesto sobre el Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana se ha conocido después de finalizar el plazo para la confección del orden del día y la ha planteado como moción de urgencia por entender que es necesario actuar cuanto antes para hacer frente a las reclamaciones vecinales que pudieran presentarse.

Koldo Iturbek esan du epaia otsailaren 16koa dela, hau da, oso berria, eta indargabetu egin duela Gipuzkoako araudi bat. Epaiaren kontu asko dago aztertzeko oraindik, ikusteko zer

Koldo Iturbe indica que la sentencia es de 16 de febrero, es decir, muy reciente y que deja sin efecto una normativa guipuzcoana. Todavía hay muchas cuestiones que analizar de la sentencia

ondorio dakartzan; beraren iritziz ez da premiazkoa mozioa onartzea, eta, horregatik, haren kontra bozkatuko du; dena dela, hurrengo osoko bilkura batean aurkeztera animatu du.

para ver sus propios efectos y entiende que no existe urgencia en la aprobación de la moción, por lo que se opondrán a la misma, sin perjuicio de animarle a que la presente en un siguiente pleno.

Eduardo Andradek jakinarazi du PP abstenitu egingo dela. Gogorarazi du aurreko osoko bilkuran ohartarazi zuela Konstituzioaren kontrako ezaugarriak izan zitzakeela zerga horrek, oraindik zalantzak daudela epaiaren eragin-esparru juridikoaz, eta hura baloratzen ez den bitartean ez dela arinegi hartu behar erabakirik.

Eduardo Andrade manifiesta que el PP se va a abstener. Recuerda que el pasado Pleno ya indicó que este impuesto podía tener cuestiones inconstitucionales y todavía existen dudas acerca del alcance jurídico de la sentencia y en tanto no se valore la misma estima que no deben adoptarse decisiones precipitadas.

Ibon Rodriguezek adierazi du ados dagoela beste talde batzuek lehenago esandakoarekin, eta ez deritzola beharrezko presakotasunari; beraien ustez, komenigarriagoa da geroago jorratzea gaia, ondorioak baloratu ostean, eta horregatik abstenitu egingo dira.

Ibon Rodríguez manifiesta estar de acuerdo con lo indicado precedentemente por otros grupos y no ven la necesidad de la urgencia y creen más conveniente tratar posteriormente, una vez valorados los efectos, por lo cual se abstendrán.

Alkateak hitza hartu, eta esan du presakotasuna baloratzeko kontuan hartu behar dela hura eragiten duen gertaera gai-zerrenda egin ostean jazo edo ezagutu dela, eta kasu honetan halaxe izan da, baina aldi berean ez dagoela premiarik udalak erabakiak hartzeko, eta hurrengo osoko bilkura batean jardun dezaketela mozioaz.

El Alcalde interviene para indicar que para valorar la urgencia se tienen en cuenta que el hecho causante de la moción se haya conocido o producido tras haberse elaborado el orden del día, que en este caso así ha sido, pero también manifiesta que no hay urgencia en tomar decisiones por parte del ayuntamiento y que esta moción puede ser objeto de tratamiento en un próximo Pleno.

Presakotasuna bozkatuta, ez da onartu, aldeko boto bat jaso duelako (Ciudadanos), 11 boto kontra (EAJ eta PSE-EE), eta 12 abstentzio (PP, GUK eta EH Bildu). Beraz, ez da gai-zerrendan gehitu mozioa.

Sometida la urgencia a votación es rechazada al obtener 1 voto a favor, Ciudadanos; 11 votos en contra, PNV, PSE-EE; 12 abstenciones, PP, GUK, EH Bildu. Por tanto no se incorpora al orden del día la moción.

## MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

## MOCIONES E INTERPELACIONES

**27.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: SEMAFOROA GABRIEL RAMOS URANGA KALEAN EZARTZEA.**

Raquel Gonzalezek mozioa irakurri du. Jakinarazi du Lantegi Batuakeko langileek eskertuko luketela semaforoa jartzea, eta udalean baliabide nahikoak daudenez, gobernu-taldearen borondate politikoaren baitan baino ez dagoela.

Enrique Olasok azaldu du proposamena aztertu dutela eta badakitela Lantegi Batuaken zentroko erabiltzaileek eskatu zutela semaforoa jartzea duela hainbat urte eta oraindik segitzen dutela eskatzen, eta, horregatik, mozioaren alde egingo dutela.

Maite Arraizak adierazi du EH Bilduk mozioaren alde egingo duela, eta beraren ustez beharrezkoa dela mugikortasunari buruzko plan globalago bat; plan hori gauzatzen ez den bitartean, orain aurkeztu denaren moduko mozioak babestuko ditu, kontuan harturik zein erabiltzaile-kolektibori lagundu nahi zaion. Bukatzeko, nabarmendu du beharrezkoa dela udaleko talde guztien artean prestatzea plan bat.

Santiago Sainzek esan du beraren ustez interesgarria dela proposamena, eta babestuko duela, mugikortasun jasangarrian era irisgarritasunean aurrerapenak dakartzaten kontu guztiak bezala.

Joseba Arregik esan du nahiz eta proposamenak pertsonen irisgarritasuna hobetuko duela dirudien, ikuspegi teknikotik gauzak ez

**27.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/INSTALAR UN SEMÁFORO EN LA CALLE GABRIEL RAMOS URANGA.**

Raquel González da lectura a la moción. Manifiesta que los trabajadores de Lantegi Batuak agradecerían la ubicación del semáforo y existen recursos suficientes en el ayuntamiento por lo que únicamente depende de la voluntad política del equipo de gobierno.

Enrique Olaso expone que han analizado la propuesta y conocen que los usuarios del centro de Lantegi Batuak solicitaron hace años la colocación del semáforo y mantienen todavía la solicitud por lo que apoyarán la moción.

Maite Arraiza indica que EH Bildu apoyará la moción y cree que es necesario un plan más global sobre movilidad y en tanto se realiza apoyarán medidas como la que se presenta, teniendo en cuenta al colectivo usuario al que se pretende mejorar. Finaliza indicando la necesidad de trabajar en un plan por parte de todos los grupos municipales.

Santiago Sainz cree que la propuesta es interesante y la van a apoyar como todas las cuestiones que supongan avances en movilidad sostenible y accesibilidad.

Joseba Arregi indica que la propuesta tiene apariencia de mejorar la accesibilidad de las personas pero técnicamente a veces las cosas no son

direla horrela zenbaitetan, baina errazena dela olatuarekin bat egitea. Eta Gobernu-taldea abstenituko dela, beren osotasunean aztertu behar direlako eskaerak. Gogorarazi du hainbat urtetik hona dagoela mugikortasun-plan bat Getxon, eta ezin direla erabakiak hartu arrazoirik gabe; jarraian, jakinarazi du zer irizpidek erabakiarazi dizkieten oinezkoen pasabideak jartzea, espaloiak zabaltzea, aldaketak egitea zirkulazioan, eta semaforoak kentzea. Gogorarazi du Trafikoko Zuzendaritza Nagusia hirietan semaforoak kentzearen aldeko dela, eta oinezkoen elkarteek semaforoez dituzten irizpideen arabera, horien funtzioa da ibilgailuei lehentasuna ematea oinezkoen aurrean.

así, aunque lo más fácil es sumarse a la ola. El equipo de gobierno se va a abstener porque es necesario estudiar las demandas en su conjunto. Recuerda que desde hace años hay un plan de movilidad en Getxo y que no se pueden adopotar decisiones sin justificación, pasando a dar cuenta de los criterios para tomar decisiones como han sido la implantación de pasos de peatones, ampliaciones de aceras, cambios de circulación y eliminaciones de semáforos. Recuerda que la Dirección General de Tráfico apoya la eliminación de semáforos en la ciudad y que los criterios de asociaciones de viandantes sobre los semáforos recogen que éstos sirven para priorizar el vehículo sobre los peatones.

Raquel Gonzalezek erantzun du ez deritzola arrazoizko Madril edo Trafikoko Zuzendaritza Nagusia aipatzeari, Getxoko Andra Mariko semaforo bati buruz berba egitean, hiriaren erdialdean ez dago eta. Azpimarratu du oposizioko talde guztiek lau egunetan ikusi dutela semaforoak beharrezkoak direla, errealitatea ezagutzen dutelako, eta euren ustez gobernu-taldea ez dela beren bulegoetatik irteten. Amaitzeko, nabarmendu du Lantegi Batuaken instalazio batzuk daudela inguru horretan.

Raquel González replica que no le parece razonable hablar de Madrid, de la Dirección General de Tráfico para hablar de un semáforo en Santa María de Getxo que no está en el centro de la ciudad. Resalta que todos los grupos de la oposición han visto en cuatro días la necesidad de los semáforos porque conocen la realidad y creen que el equipo de gobierno no sale de sus despachos. Finaliza recalcando la existencia de unas instalaciones de Lantegi Batuak en dicho entorno.

Enrique Olasok adierazi du, ikuspegi orokor batean, ados egon daitezkeela gobernu-taldeak esandakoarekin, baina zenbait behar zehatzek eskatzen dutela erantzun desberdinduak ematea. Eta esan du semaforoa jartzeko eskatzen ari den tokitik gertu sakagailudun semaforo batzuk daudela, eta horiek ere erantzuten dietela dauden ekipamenduen errealitate ezberdinei.

Enrique Olaso manifiesta que pueden estar de acuerdo con lo dicho por el equipo de gobierno como criterio general pero luego hay necesidades concretas que requiren respuestas diferenciadas. Indica que cerca de donde se está planteando colocar un semáforo existen también otros semáforos con pulsador que responden también a diferentes realidades de equipamientos existentes.

Joseba Arregik gogorarazi du gobernu-taldeak ez duela esan mozioaren kontra bozkatuko duenik, bakarrik esan duela azterketa bat egin behar dela aldez aurretik, eta horregatik abstenitu egingo direla. Euren ustez, semaforoak jartzean irizpide ekonomiko eta sozialak ere kontuan hartu behar dira, eta erabakiak segurtasun-irizpideen araberakoa izan behar du. Esan du irizpide globalekin aztertu behar dela, udalerri osoari begira, segurtasunaren irizpideari lehentasuna emanda. Eta berriro esan du Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak ez duela berba egin semaforoak hirien erdialdean kentzeaz, hirietan kentzeaz baizik.

Joseba Arregi recuerda que el equipo de gobierno no ha dicho que vaya a oponerse a la moción sino que ha dicho que es necesario previamente realizar un estudio, razón por la que se abstendrán. Cree que la semaforización también debe responder a criterios económicos y sociales y la decisión debe responder a criterios de seguridad. Manifiesta que hay que estudiar con criterios globales y para todo el municipio, primando el criterio de seguridad. Insiste en que la Dirección General de Tráfico no habla de reducir los semáforos en el centro de las ciudades sino en las ciudades.

Raquel Gonzalezek kritikatu du gobernu-taldea semaforoetan zentratzen dela, eta ez semaforoaren inguruetan, mozioak aipatzen duena, eta horrek agerian uzten duela gobernu-taldearen jarrera. Gogorarazi die 1993tik ari direla mugikortasuna aztertzen, eta urte askotxo direla. Amaitzeko, esan du kolektibo batek egin duela eskaera, eta ez talde politiko batek.

Raquel González critica que el equipo de gobierno se centra en los semáforos y no en el entorno del semáforo que es de lo que habla la moción, lo que denota la actitud del equipo de gobierno. Les recuerda que desde el año 1993 llevan estudiando la movilidad y son muchos años. Finaliza indicando que esta petición viene de un colectivo y no de un grupo político.

Joseba Arregik erantzun dio 1993an sortu zela lehen plana, eta garai hartan ez zegoela Ramon Uranga Kalea. Amaitzeko, adierazi du ideia aztertuko dutela, eta bilatuko dutela zein den konponbiderik onena.

Joseba Arregi replica que el año 1993 se gestó el primer plan y en esa fecha no existía la calle Ramón Uranga. Finaliza indicando que valorarán la idea y buscarán la solución más adecuada.

Bozketara eraman da mozioa, eta emaitza hau lortu du: 13 boto alde (PP, GUK, EH Bildu, eta Ciudadanos), eta 11 abstentzio (EAJ eta PSE-EE).

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 13 votos a favor, PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos; 11 abstenciones, PNV, PSE-EE.

Gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría es aprobada la siguiente moción:

Gabriel Ramos Uranga kalean

La calle Gabriel Ramos Uranga es una

neurrizko zirkulazioa egon ohi da; zebra-bide goratu asko daude bertan eta, a priori, ez dago zirkulazio-arazo larririk.

calle de tráfico moderado, con muchos pasos de cebra elevados y que no presenta, a priori, graves problemas de tráfico.

Alabaina, 57. zenbakiaren parean, zentro okupazional bat dago, Dokudea, Lantegi Batuak fundazioak kudeatutakoa, hots, Bizkaian desgaitasuna duten pertsonei lan egiteko aukerak sortzeaz arduratzen den irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua.

Sin embargo, a la altura del numero 57, hay un centro ocupacional, Dokudea, gestionado por Lantegi Batuak, organización privada sin ánimo de lucro dedicada a la generación de oportunidades laborales para personas con discapacidad en Bizkaia.

Lantegi Batuak erakundeko zentro horretako erabiltzaileak urteak daramatzate sakagailua daukan semaforo bat eskatzen zentroaren aurrean dagoen zebra-biderako.

Los usuarios de este centro de Lantegi Batuak, llevan años pidiendo un semáforo "con pulsador" en el paso de cebra que se encuentra justo delante del centro.

Udal honek beti eman die ezezko erantzuna, dagoeneko zebra-bide goratu asko daudelako eta ez dagoelako zirkulazio askorik, lehenengo paragrafoan azaldu bezala.

Siempre han recibido la negativa por respuesta, por parte de este Ayuntamiento, porque ya hay pasos de cebra elevados y no hay mucho tráfico, como exponíamos en el primer párrafo.

Hala ere, zentro horretan desgaitasuna eta sentsibilitate bereziak dituzten hogeita hamar pertsonek egiten dute lan eta zerbitzu okupazionalean diharduten ehun pertsonek hartzen dute parte; horietariko asko ez dira lasai sentitzen kalea gurutzatzean, babesten dituen semaforo bat ez badago. Herritar horietarako, kalea gurutzatzea beldurraren aurkako borroka etengabea da, eta sakagailua daukan semaforo sinple bat baino ez dute eskatzen, beren lantokira sartzean zein irtetean erabiltzeko; gainera, hori erabiltzeko beharrik egon ezean, ez luke zirkulazioa oztopatuko.

Pero en ese centro, trabajan una treintena de personas, con discapacidad y sensibilidades especiales, y otro centenar participa en el servicio ocupacional, y muchas de ellas no se sienten seguras cruzando la calle sin un semáforo que les ampare. Son vecinos, para los que cruzar la calle es una lucha constante contra el miedo y que sólo piden un simple semáforo "con pulsador", para poder utilizarlo a la entrada y a la salida de su lugar de desarrollo, sin interferir en la circulación cuando no sea preciso su uso.

Udal Talde Popularreko kideok urteak daramatzagu eskaera hori entzunarazten saiatzen, baina ez dugu lortu; hori dela eta, Udalbatzan

Desde el Grupo Municlpal Popular ya hemos intentado que se escuche su petición desde hace años sin conseguirlo, por eso, y aprovechando la

sentsibilitate berriak dituzten indar politikoak eta hirigintzako beste teknikari batzuk sartu direla aprobetxatuz, eskaera historiko hori ekarri nahi dugu berriz ahotara, ea behingoz gauzatzea lortzen dugun.

entrada de nuevas fuerzas politicas en el pleno con nuevas sensibilidades y nuevos técnicos en urbanismo, traemos de nuevo esta petición histórica a ver si por fin conseguimos que se materialice.

Horregatik guztiagatik, Getxoko Udal Talde Popularrak ERABAKI-PROPOSAMEN hau aurkeztu nahi du:

Por todo ello, el Grupo Municipal Popular de Getxo presenta la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

LEHENENGOA. Ahalik arinen sakagailua daukan semaforo bat jartzea Gabriel Ramos Uranga kalean, Lantegi Batuak zentroaren parean.

PRIMERO. Que se instalen a la mayor brevedad posible un semáforo "con pulsador" en la calle Gabriel Ramos Uranga a la altura del centro de Lantegi Batuak.

BIGARRENA: Mozio hau udaleko hedabideetan jakinaraztea.

SEGUNDO: Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

**28.- PP UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GETXO FITUR 2018AN.**

**28.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/LA PRESENCIA DE GETXO EN FITUR 2018.**

Miguel Ibabek ondorengo mozioa irakurri du:

Miguel Ibabe da lectura a la siguiente moción:

Duela 37 urtetatik hona, urtarrilean, Turismoaren Nazioarteko Azoka (FITUR) egiten da IFEMAn. Azoka horretan, 164 herrialde desberdinetako 10000 erakustegi inguru biltzen dira. Halaber, gutxi gorabehera 200 ministro eta agintari elkartuko dira, eta 4300 komunikabidetako 7000 kazetari baino gehiagok estaldura emango diote azokari.

Desde hace 37 años, en el mes de Enero, se celebra en IFEMA la Feria Internacional del Turismo (FITUR). En dicha Feria se congregan casi 10000 expositores de 164 países diferentes. Mas de 7000 periodistas de 4300 medios de comunicación dan cobertura a la Feria que cuenta con alrededor de 200 Ministros y Autoridades.

Udal Talde Popularraren ustez, gurutzaontziak uzten ez dizkigun turistak erakarri beharko lituzke Getxok.

Desde el Grupo Municipal Popular creemos que este es un escenario en el que Getxo debe estar presente para conseguir atraer a esos turistas que los cruceros no nos dejan.

Udal askok stand propioa daukate eta turista horiek erakartzea lortzen dituzte, udalerri bakoitzaren tratu berezi eta espezifikoarekin.

Son muchos los Ayuntamientos que tienen stand propio y consiguen atraer a esos turistas con un trato particular y específico de cada municipio.

Badakigu Bizkaiko standean probintzia osoa sustatzen dela, baina aurrerapauso bat egin nahi dugu eta Getxok, udalerri bikaina eta erakargarria den aldetik, bere espazio propioa izatearen aldeko apustua egin.

Sabemos que dentro del stand de Bizkaia se promociona toda la provincia, pero desde el Grupo Popular apostamos por dar un paso adelante y que Getxo, como gran y atractivo municipio que es, tenga su propio espacio.

Horrengatik guztiagatik, Getxoko Udal Talde Popularrak honako erabaki-proposamena egin nahi du:

Por todo ello, el Grupo Municipal Popular de Getxo presenta la siguiente

ERABAKI-PROPOSAMENA

PROPUESTA DE ACUERDO

LEHENENGOA.- Udalak hurrengo Turismoaren Nazioarteko Azokaren (FITUR) edizioan stand propioa izateko beharrezkoak diren izapide guztiak egitea.

PRIMERO.-. Que el Ayuntamiento inicie los tramites necesarios para tener stand propio en la próxima edición de FITUR (Feria Internacional del Turismo)

BIGARRENA.- Mozio honen berri ematea udal-komunikabideei.

SEGUNDO.- Que se informe de. La presente moción en los medios de comunicación municipales.

Inazio Uriartek, gobernu-taldearen izenean, eskertu du proposamena, baina, interes estrategikoa, profesionaltasuna, eraginkortasuna eta efizientzia direla eta, ez dute bat egingo harekin. Azaldu du Getxok beste erakunde batzuekin parte hartzen duela hainbat markaren eta helmugaren babespean, eta jarraian zerrendatu ditu. Beraren ustez, elkarlotutako globalizatutako mundu batean, txokokeria ez da eraginkorra helmuga turistiko batentzat. Getxo hainbat multzo eta helmugaren parte da, eta horiek turismo eskaintzen arabera erabiltzen dira. Gogorarazi du Getxo 20 minutura dagoela Bilbotik, eta ordubete baino gutxiagora Donostiatik edo Gasteiztik, eta Madril edo New

Inazio Uriarte agracede, en nombre del equipo de gobierno, la propuesta pero por interés estratégico, profesionalidad, eficacia y eficiencia no van a asumir la misma. Explica que Getxo participa con otras instituciones bajo diferentes marcas y destinos que pasa a enumerar. Cree que en un mundo interconectado y globalizado un excesivo localismo como destino turístico no es efectivo. Getxo es parte de muchas agrupaciones y destinos diferentes que se utilizan en función de las ofertas turísticas. Recuerda que Getxo está a veinte minutos de Bilbao, a menos de una hora de San Sebastián y de Vitoria que son tiempos que en grandes ciudades como Madrid o Nueva York se requieren para salir de la propia

York bezalako hiri handietan denbora horiek behar izaten direla hiritik bertatik irteteko. Esan du Getxo ez dela irla bat, testuinguru baten parte baizik, eta mozioa onartzeak Fiturren garrantzi eta erakargarritasun txikiagoko toki batean aurkeztea ekarriko lukeela, Basque Country standean egotearen aldean.

ciudad. Indica que Getxo no es una isla sino que es parte de un contexto y si se admitiera la moción supondría presentarse en Fitur en un sitio con menos presencia y menos atractivo que estar incorporados al stand de Basque Country.

Ibon Rodriguezek errebindikatu du oposizioa erantzukizunez jokatzen duela, eta adierazi du mozioaren kontra bozkatuko dutela gobernu-taldeak emandako azalpenekin bat datozelako. Ez dute egoki ikusten Getxo bere kasa egotea Fiturren, eta marketinaren ikuspegitik, merkatuak identifikatu behar dira, eta Fiturren moduko ekitaldietan ez dute logiko ikusten Getxo bakarrik joatea.

Ibon Rodríguez reivindica que la oposición actúa con responsabilidad y manifiesta que votarán en contra de la moción porque comparten las explicaciones dadas por el equipo de gobierno. No ven a Getxo en solitario en Fitur y desde un punto de vista de marketing hay que identificar los mercados y en un gran evento como Fitur no ve razonable acudir solo como Getxo.

Enrique Pradak adierazi du GUK taldeak errespetatzen duela proposamena, baina zalantzak dituztela haren egokitasunari buruz. Euren iritziz, multzoan joanda biderkatzen da erakarmena, baina begi onez ikusten dute aukera hori aztertzea; nolanahi ere, ez deritzote lehentasunezko inbertsioa, nahiz eta onartzen duten beste udalerri batzuk (Barakaldo eta Santurtzi), eta zenbait enpresa ere, bere kasa joan direla. Azaldutako arrazoiengatik, abstenitu egingo dira.

Enrique Prada manifiesta que a GUK la propuesta les merece respeto pero dudan en cuanto a su conveniencia. Creen que en conjunto se multiplica el poder de atracción aunque les parece bien estudiar la posibilidad, pero en todo caso no les parece una inversión prioritaria sin perjuicio de reconocer que hay ayuntamientos como Barakaldo y Santurtzi que han acudido solos y también empresas que han acudido en solitario. Por lo expuesto se van a abstener.

Miguel Ibabek erantzun du ez zuela espero Osoko Bilkuran entzutea ia Getxo Bilboko auzoa balitz bezala aurkezten duen planteamendurik, eta horrek agerian uzten duela gobernu-taldeak zer proiektu duen etorkizuneko Getxorentzat. Fiturrera bere kasa joan diren erakusketari guztiek (Barakaldoko eta Santurtziko udalak, Basque Country…), pabilioi batean daude, eta horretan Getxok ere egon beharko luke bereizita. Alkateari

Miguel Ibabe replica que no se imaginaba que en el Pleno pudieran oír voces que calificaban prácticamente a Getxo como un barrio de Bilbao, lo que evidencia el proyecto del Getxo del futuro que tiene el equipo de gobierno. Todos los expositores que han acudido a Fitur por separado como el ayuntamiento de Barakaldo, Santurtzi, Basque Country, etc., están en un pabellón en el que debería de estar también diferenciado Getxo. Recuerda

gogorarazi dio Getxoren turismo-gaitasunaz esandakoa, baina beraren ustez ez duela horretan sinesten, eta horregatik segitzen dutela daukaten herrialde- edo nazio-proiektu horren barruan, eta horretan Getxo itsasorako irteera dela, gero eta gehiago Bilboko auzoa.

al Alcalde lo que ha manifestado de la potencialidad del turismo de Getxo pero estima que no lo cree y por eso siguen en ese proyecto que tienen de país o nación en el que Getxo es una salida hacia el mar y cada vez más un barrio de Bilbao.

Inazio Uriartek erantzun du gobernu-taldearentzat Getxo ez dela Bilboko auzoa, baina hala ere batera egin behar dela lan. Barakaldo eta Santurtzi ere joango dira Fiturrera, baina Euskadiren standaren barruan, eta ez bere kasa, lehen egiten zuten moduan, eta, era berean, Euskadiko beste helmuga batzuk ere sartzen dira Euskadiren standean. Esan du egia dela enpresa batzuk bere kasa joaten direla beren proiektuak sustatzera, baina beste batzuk Euskadiren eta Getxoren standean daudela, eta beren kasako jarduerak ere egiten dituztela, zer produktu eskaintzen duten eta nori zuzentzen zaizkien. Gobernu-taldeak guztiz sinesten du Getxoren gaitasun turistikoan.

Inazio Uriarte replica que para el equipo de gobierno Getxo no es un barrio de Bilbao pero es necesario trabajar conjuntamente. Barakaldo y Santurtzi también van a Fitur pero dentro del stand de Euskadi y no de manera independiente como iban antes y así también otros destinos vascos también se acogen al stand de Euskadi. Reconoce que hay empresas que van de forma independiente a promover sus proyecto, aunque otras se ubican en el stand de Euskadi y Getxo también realiza actuaciones propias en función del producto que ofrecen y el público al que se dirigen. El equipo de gobierno cree profundamente en el potencial turístico de Getxo.

Miguel Ibabek erantzun du arrazoia eman dietela azalpen osoan, mozioarekin berezko espazioa lortu nahi baitzuten. Esparru horretan Santurtzik eta Barakaldok beren lekua badute, gauza bera eskatzen du Getxorentzat. Adierazi du Fiturren webgunean Getxo bilatuz gero ez dela ezer agertuko, baina, aitzitik, Barakaldo bilatuz gero (esaterako), bai agertuko direla udalerria eta bertako zerbitzu turistikoak, eta horixe eskatzen duela Getxorentzat. Berriro esan du EAJk ez duela inoiz onartzen Fiturren gehiago egin daitekeela Getxoren alde, ez duela inoiz pentsatu horrelakorik, eta gobernu-taldea Bilboko auzoa izatearen *aterki*aren azpian geratzen dela.

Miguel Ibabe replica que les han dado la razón en toda la exposición ya que buscan con la moción un espacio propio. Si Santurtzi y Barakaldo tienen su sitio dentro de ese marco, pide lo mismo para Getxo. Manifiesta que si se acude a la web de Fitur y se busca Getxo no aparecerá nada pero si se busca otro municipio como Barakaldo sí aparece y con los servicios turísticos que presta y esa situación es la que pide para Getxo. Iniste en que el PNV nunca reconoce que se puede hacer algo más en Fitur por Getxo porque nunca se lo ha planteado y se queda el equipo de gobierno bajo el paraguas de ser un barrio de Bilbao.

Inazio Uriartek adierazi du udalean dagoenetik Fitur feria guztietara joan dela, eta Barakaldok eta Santurtzik ez dutela stand propiorik, Euskadiren standaren barruan daudela, Getxo legez, baina, dena dela, aztertuko duela webguneari buruz esandakoa.

Inazio Uriarte manifiesta que desde que está en el ayuntamiento ha ido a todas las ferias de Fitur y Barakaldo y Santurtzi no tienen stand propio sino que están dentro del stand de Euskadi como Getxo, aunque analizará lo que se les ha indicado de la página web.

Miguel Ibabek berriro azpimarratu du Getxok esparru propioa eduki behar duela, beste udalerri batzuek daukaten moduan, eta ezin dela Bilboko auzotzat jo ezta itsasorako inoren irteeratzat ere. EAJri eskatu dio udalerriaren proiektu propio bat turismoaren arloan, eta azter dezatela Fiturreko presentziarena.

Miguel Ibabe insiste en la necesidad de un espacio propio de Getxo como tienen otros municipios, no puede considerarse como un barrio de Bilbao ni una salida al mar para nadie. Reclama al PNV un proyecto propio de municipio en el ámbito turístico y que se estudie la presencia en Fitur.

Mozioa bozkatu da, eta ez da onartu, aldeko 5 boto jaso dituelako (PP), 15 boto kontra (EAJ, EH bildu eta PSE-EE), eta 4 abstentzio (GUK eta Ciudadanos).

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 5 votos a favor, PP; 15 votos en contra, PNV, EH Bildu, PSE-EE; 4 abstenciones, GUK, Ciudadanos.

**29.- GUK UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: SANTA EUGENIA ETA HERRITARREN PARTAIDETZA.**

**29.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL GUK S/PARTICIPACIÓN CIUDADANA PARA SANTA EUGENIA.**

Susana Andollok mozioa irakurri du.

Susana Andollo da lectura a la moción.

Oier Iturraldek adierazi du EH Bilduk mozioa babestuko duela, eta kritikatu du ez dela parte hartzeko prozesurik egin ukitutako herritarrekin. Esan du zabuak kendu direla, eta inguruko parkeetan ez dagoela sei urtetik beherako umeentzako zaburik, gurasoen iritziz. Plataforma bat antolatu dute, eta 500 atxikimendutik gora lortu dute. EH Bilduk uste du behar dela parte hartzeko prozesu bat, eta proposatu du zabuak manten daitezela, prozesuak iraun bitartean.

Oier Iturralde indica que EH Bildu apoyará la moción y critica qe no se ha dado un proceso participativo con la ciudadanía afectada. Manifiesta que se han quitado los columpios y que en los parques colindantes no hay columpios para niños menores de 6 años, según opinan los padres. Han organizado una plataforma que ha agrupado a más de 500 adhesiones. Cree necesario un proceso participativo y EH Bildu plantea que se mantengan los columpios en tanto se desarrolla dicho proceso.

Joseba Arregik esan du gobernu-taldeak iragarria duela erakusketa bat

Joseba Arregi manifiesta que el equipo de gobierno ya ha anunciado una

martxorako, herritarren iritziak jasotzeko, eta errealitatek horrek bere baitan hartzen duela mozioa. Kultura-ekipamendu berriak sortutako behar berriei erantzun behar die plazaren diseinuak, eta espazioak eta bidegintzak eragindako mugak ere kontuan hartzekoak dira. Proposatu da denboran eta espazioan erabilera ezberdinak eskaintzen duen plaza bat. Proposamena egiteko, horren gaineko azterketa bat hartu da kontuan, erabiltzaileen, klimaren, argitasunaren, eta abarren ikuspuntuetatik egin dena. Halaber, kontsulta bat egin zitzaien elkarteei, bere garaian. Martxoan, erakusketa bat zabalduko da, plazan egoteko modu ezberdinei buruz parte hartzea sustatzeko. Beraren ustez, mozioak baditu horrekin bat datozen edukiak, eta horregatik abstenitu egingo dira.

exposición para marzo para recoger los criterios vecinales y esa realidad recoge la propia moción. El diseño de la plaza debe responder a las nuevas necesidades generadas por el nuevo equipamiento cultural y también tienen que tener en cuenta las limitaciones espaciales y de vialidad. La propuesta es una plaza que posibilite diversos usos en el tiempo y espacio. Para realizar la propuesta se ha tenido en cuenta un estudio sobre la misma sobre el punto de vista de los usuarios, la realidad climática, luz, etc. También en su día se realizó una consulta a las asociaciones. En marzo se abrirá una exposición para promover la participación acerca de las diferentes maneras de estar en la plaza. Cree que la moción tiene contenidos con los que coinciden, por lo que se abstendrán.

Eduardo Andradek adierazi du bat datorrela GUK eta EH Bilduk esandakoarekin, eta ez dela parte hartzeko inolako prozesurik egin. Beraren iritziz, gobernu-taldea barre egiten ari zaie Getxo herritarrei, batez ere Romokoei. Gobernu-taldeak proiektu bat egin du inorekin kontatu gabe, eta aurkeztu zuenean adierazi zitzaion dauden garajeetara sartu-irteteko arazoak ikusten zirela, eta, gainera, arazo berriak sortu dituzte zabuak kentzean; hori guztia izan da gobernu-taldeak plaza huts bat nahi duelako, bertan karpak jartzeko, nahiz eta kultura-instalazio berria egin duten. Beraren ustez, parte hartzeko prozesua egin behar da proiektua egin aurretik, eta ez ondoren, gobernu-taldeak egin nahi duen moduan. Esan du gobernu-taldeak aukera izan duela atzera egiteko: 2016ko abenduan proiektua lizitaziora ateratzea erabaki zen, baina akatsak zituenez, otsailaren 7an atera dute berriro, ordurako auzotarren

Eduardo Andrade indica que comparte lo manifestado por GUK y EH Bildu y que no se ha realizado ningún proceso participativo. Cree que el equipo de gobierno se está riendo de los vecinos de Getxo y de Romo especialmente. El equipo de gobierno ha redactado un proyecto sin contar con nadie y cuando se presentó ya se indicaron los defectos que se veían de acceso a garajes que existen y además se crean nuevos problemas por quitar los columpios y todo ello es porque el equipo de gobierno quiere una plaza desierta para poner carpas pese a que han hecho una nueva instalación cultural. Opina que el proceso participativo tiene que ser antes de realizar el proyecto y no después como plantea el equipo de gobierno. Indica que el equipo de gobierno ha tenido posibilidades de rectificar ya que en diciembre de 2016 aprobó sacar a licitación el proyecto pero como contenía errores, el día 7 de este mes han vuelto a sacarlo pese a que

mobilizazioak hasiak baziren ere. Errealitate horri ez ikusiarena egitean, agerian utzi dute ez zaizkiela auzotarrak axola, eta barre egiten dietela. Galdetu dute zertarako balio ote duen erakusketa martxoan egiteak, ordurako adjudikatuta egongo baita proiektua, eta aldaketa ñimiñoak baino ezingo baitzaizkio egin.

para esa fecha existían ya movilizaciones vecinales. Obviando esa realidad lo que evidencian es que los vecinos no les importan y se ríen de ellos. Se preguntan de qué sirve la exposición en marzo cuando está adjudicado el proyecto ya que únicamente sólo se van a poder incorporar mínimas modificaciones.

Santiago Sainzek gogoan hartu du martxoan hasiko dela parte hartzeko prozesua, baina uste du proiektua lizitazioan atera ondoren egitea arraroa dela, horrek esan nahi baitu definituta dagoela plazaren banaketa. Beraren iritziz, parte hartzeko prozesuak lehenago hasi behar dira, eta entzun behar zaie plaza erabiliko dutenei.

Santiago Sainz toma nota de que en marzo va a iniciarse un proceso participativo pero que cree que realizarlo después de sacar a licitación el proyecto, lo que supone que está definida la distribución de la plaza, es raro. Opina que los procesos participativos deben iniciarse antes y escuchar la opinión de los que van a usar la plaza.

Susana Andollok azpimarratu du absurdoa dela lizitazioa egin ostean antolatzea parte hartzeko prozesua. Ez dira errespetatu herritarren nahiak; Santa Eugenia plaza da inguru seguru batean 6 urtetik beherako umeentzako zabuak dituen toki bakarra. Gobernu-taldeak esan du kolektiboekin berba egin duela, baina beraren ustez beste kezka handiago batzuk dauzkate auzokoek. Esparruei albait erabilera gehien ematearekin ados daude, baina beldur dira ez ote den geratuko plaza huts bat, erabilera puntualetarako, eta karpetarako zuloz josita. Berriro esan du parte hartzeko prozesuak ordenatuagoak izan behar direla.

Susana Andollo insiste en que es absurdo organizar el proceso participativo tras realizar la licitación. No se respetan las voluntades ciudadanas, la plaza de Santa Eugenia es el único lugar con columpios para niños menores de 6 años en un entorno seguro. El equipo de gobierno dice que ha hablado con colectivos pero cree que a los vecinos les preocupan otras cosas. Apoyan que a los espacios se les de el mayor número de usos posibles y temen que quede una plaza vacía para usos puntuales y llenas de agujeros por las carpas. Insiste en que los procesos participativos han de ser más ordenados.

Joseba Arregik azaldu du erabaki tekniko batzuk bete beharrekoak direla, ekipamendu berria dagoelako, lurpeko aparkaleku bat dagoelako, inguruko kaleengatik… Onartu du karpak egongo direla, hala eskatzen zutelako elkarteek, jarduerak egiteko beharrak, eta abarrek. Azaldu du gertuko parke batzuek dituztela zabuak, eta

Joseba Arregi indica que hay decisiones técnicas que son de necesaria contemplación que se derivan de la existencia de un nuevo equipamiento también de la existencia de un parking subterráneo, las calles colindantes, etc. Reconoce que habrá carpas ya que lo demandan las asociaciones, la necesidad de realizar actividades etc.

gogorarazi du auzotarrak asko erabiltzen ari direla gobernu-taldeak konpondu dituen plazak.

Indica que existen parques cercanos con columpios y recuerda que las plazas que han sido arregladas por el equipo de gobierno están teniendo una gran utilización vecinal.

Eduardo Andradek Joseba Arregi kritikatu du EAJren plaza-ereduaz berba egiten duelako, ez herritarrek parte hartzetik irten litekeen ereduaz. PP haren kontra dago, auzotarrak kontra daudelako, eta kontatu ditu bere ustez gobernu-taldeak bere jarduketez Romon egin dituen kalteak.

Eduardo Andrade critica a Joseba Arregi porque habla de un modelo de plaza del PNV, no del que se puede derivar de la participación ciudadana. El PP está en contra porque los vecinos están en contra y relata las afrentas que en su opinión el equipo de gobierno ha realizado en Romo con sus actuaciones.

Joseba Arregik denak gonbidatu ditu martxoan zabalduko den erakusketara joaten. Azaldu du ez dakiela inongo taldek beste plaza-eredurik aurkeztu duenik Berriro azaldu du zer urrats eman diren proiektua definitzeko, eta parte hartzeko prozesuak ekar dezakeela umeentzako jolastokia jartzea. Gogorarazi du, halaber, beste kasu batzuetan ere auzotarrek protestak egin zituztela plazak birmoldatzearen aurka, kale-edana erakarriko zuelakoan, Gobelaurren bezala, eta gero ez dela horrelakorik gertatu.

Joseba Arregi invita a todos a asistir a la exposición que se va a realizar en marzo. Manifiesta que no conoce otro modelo de plaza que haya sido presentado por ningún grupo. Repite los pasos dados para definir el proyecto y que en el proceso de participación puede derivarse la instalación de juegos infantiles. Recuerda también que en otros casos también hubo protestas vecinales contra remodelaciones de plazas porque iban a generar botellón como en el caso de Gobelaurre y que luego nada de eso se ha producido.

Susana Andollok adierazi du ez zaiela beldurrik izan behar parte hartzeko prozesuei. Onartu du ez dela erraza guztiak pozik uztea, baina kasu honetan zegoena mantentzea baino ez dutela eskatzen mobilizatu diren gurasoek.

Susana Andollo manifiesta que no hay que tener miedo a los procesos participativos. Reconoce que es difícil contentar a todo el mundo pero en este caso los padres movilizados no piden más que mantener lo que había.

Oier Iturraldek adierazi du gobernu-taldeak ez duela berriro egin behar edukiontziekin egin zuen akatsa, eta arazoak sorrarazten direla ikustean, aztertu behar direla, eta parte hartzeko prozesua egiten bada, erabakiak hartu aurretik egin behar dela. Onartzen du zabuak kendu daitezkeela parte hartzeko prozesuen ostean, baina

Oier Iturralde manifiesta que el equipo de gobierno no debe repetir el error en el que ha incurrido con los contenedores y que cuando se ve que se generan problemas hay que analizarlos y si se da un proceso participativo tiene que ser previo a la toma de decisiones. Admite que se puedan quitar los columpios tras los

eskatu du zabuak mantentzeko, prozesuak gauzatzen diren bitartean.

procesos participativos pero mientras estos se realizan piden que se mantengan.

Eduardo Andradek errepikatu du gobernu-taldeak aukera izan duela atzera egiteko eta auzotarrei entzun arte bertan behera uzteko proiektua berriz lizitaziora ateratzea. Parte hartzeko prozesua erabakien aurretik egin behar da, eta PPk plaza-eredu ezberdinak proposatu ditu lekuaren arabera, eta kasu honetan ez du arrazoizko ikusten zabuak kentzea.

Eduardo Andrade insiste en que el equipo de gobierno ha tenido oportunidad de rectificar y suspender el sacar a licitación de nuevo el proyecto hasta oír a los vecinos. La participación ha de ser anterior a las decisiones y el PP ha planteado diferentes tipos de plazas según los lugares y en este caso no ve razonable quitar los columpios.

Bozketara eraman da mozioa, eta emaitza hau lortu du: 13 boto alde (PP, GUK, EH Bildu, eta Ciudadanos), eta 11 boto kontra (EAJ eta PSE-EE).

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 13 votos a favor, PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos; 11 votos en contra, PNV, PSE-EE.

Gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría fue aprobada la siguiente moción:

Joan den urtarrilean, hirigintzako informazio-batzordeak Kultur Etxe berriaren ingurua —edo, auzoan ezagutzen dugun bezala, Santa Eugenia plaza— tankeratuko duen proiektu bat aurkeztu zuen.

El pasado mes de enero, en la comisión informativa de urbanismo, se presentó el proyecto que dará forma al entorno de la nueva Kultur Etxea, o como conocemos en el barrio, la plaza de Santa Eugenia.

Proiektu horri dagokionez, nabarmendu beharra dago Gobernu Taldearen legegintzaldiaren planen barruan dagoela jada, eta diseinu horretan plazarako beharrezkotzat jotzen duten ekipamendua sartu dela, hots, ezer ere ez. Alabaina, ideia berri hori ez da auzoko jendearekin (herritarrekin, elkarteekin, kolektiboekin, etab.) kontrastatu, nahiz eta haiek izan espazio hori erabiliko dutenak. Auzoa urrutiko ikuspegi hotz batetik ikusten dutenak ezin dira diseinatzeaz arduratzen diren bakarrak izan. Zergatik ez da plaza eraldatzen pertsonek espazio horri ematen dizkioten erabilpenak aintzat hartuz, jendearentzako erabilgarri ez izan arren

Se ensalza de este proyecto que está dentro de los planes de legislatura del Equipo de Gobierno y que en ese diseño ya se incluye el equipamiento que creen necesario para la plaza, es decir, nada. Lo que no se ha hecho es contrastar con gente del barrio esta nueva idea: con vecinos y vecinas, asociaciones, colectivos… que son quienes usan este espacio y que no quede diseñado solo por quienes ven el barrio desde una perspectiva más fría y distante. ¿Por qué no se modifica la plaza en función de los usos que le dan las personas a ese espacio en lugar de por lo "bonito" que sea un proyecto aunque no sea útil para la gente? Por eso, pedimos un proceso participativo

"polita" den proiektua kontuan hartu beharrean? Hori dela eta, parte hartzeko prozesu bat eskatzen dugu, non jendeak bere iritzia azaldu ahalko duen.

donde la gente se pueda expresar.

Izan ere, urtarrilaren 26ko Getxoberriren edizioan, azalean, Kultur Etxearen inguruaren proiektu berria abian jartzen ari zeneko berria agertu zenean, kexa eta protesta ugari heldu zitzaizkigun, ez baita inon ageri gaur egun dauden umeentzako zabuak eta jolastokia egongo denik. Aldaketa horretarako helarazi ziguten arrazoia honakoa da: plaza "12 urtetik gorakoentzat izango da" eta "umeak handik gertu dauden jolastokietara joan ahalko dira". Bada, 12 urtetik beherako umeen gurasoen iritzia aintzat hartuko balitz, Gobernu Taldeak ondo jakingo luke familia horiei adierazitako guneek ez daukatela eskatutakoa; izan ere, bertan dauden zabuak haur txikientzat arriskutsuak izan daitezke, eta ez daude haien adinerako egokituta.

De hecho, cuando se publicó en el getxoberri el 26 de enero en portada la noticia de que el nuevo proyecto del entorno de la Kultur Etxea se estaba poniendo en marcha, nos llegaron numerosas quejas y protestas porque no aparece ninguna zona de juegos y columpios para niños y niñas tal y como hay ahora. La razón que se nos dio para este cambio es que la plaza "será para mayores de 12 años" y que "hay otras zonas de juego cercanas a las que pueden acudir". Pues bien, si se tuviera en cuenta la opinión de los padres y madres de niños y niñas de menos de 12 años, el Equipo de Gobierno sabría de sobra que las zonas a las que se envía a estas familias no cumplen lo que demandan, porque son columpios que pueden llegar a ser peligrosos para niños pequeños y no están adaptados a la edad que tienen.

Azaroan egindako osoko bilkuran, PPk Romo auzoa erabat hobetzeko eta berritzeko neurriak aipatu zituen, eta GUK taldeko kideok adierazi genuen hori gauzatzeko herritarren iritzia aintzat hartu beharra dagoela, eta horretarako, hain zuzen ere, Santa Eugenia plazarako egingo zela uste genuen parte hartzeko prozesua aprobetxa litekeela. Baina gure harridurarako, egiaztatu dugu aurreko batzordean talde politikoekin "gizarteratu" zela proiektua (hitzez hitz, hala adierazi zuen Gobernu Taldeak Getxoberrin), eta ez dela aukerarik egon funtsezko aldaketarik burutzeko, hala nola egun dagoen jolastokiaren bezalakoa den gune bat jartzeko eskatzeko. Herritarrekin gauza

En el pleno de noviembre, en relación a la moción presentada por el PP donde se hacía mención a medidas de reforma y mejora integral para el barrio de Romo, desde GUK comentamos que era necesario que se hiciera además teniendo en cuenta la opinión de vecinos y vecinas, aprovechando precisamente el proceso participativo que creíamos que iba a existir para la plaza de Santa Eugenia como entorno de la Kultur Etxea. Pero para nuestra sorpresa, hemos comprobado que lo que se hizo en la pasada comisión fue "socializar" el proyecto con los grupos políticos (literalmente, así lo dice el Equipo de Gobierno en Getxoberri) no dando lugar a cambios sustanciales, como pedir que se mantenga una zona

bera egin nahi da: “jendaurrean erakustea martxoan; beharrezkoa denean iragarriko da hori burutzeko eguna”.

de juego como la actual. Es lo mismo lo que se quiere hacer con la ciudadanía: una “exposición pública en Marzo, que se anunciará oportunamente”.

Getxoberriko informazio horrek behin eta berriz adierazi du proiektua oso onuragarria dela, baina inola ere ez da jendeari kontsultatzeari buruz hitz egin. Nabarmendu den gauza bakarra hau da: Kultur Etxearen diseinuarekin bat etorriko dela, pertsonentzako espazioak areagotuko direla eta “barrera bisualak” kenduko direla". Umeentzako zabuak “barrera bisualak” direla uste al da? Eta, horrenbestez, kenduko diren loreontziei ematen zaien garrantzi bera ematen al zaie?

En esa información del Getxoberri, se insiste una y otra vez en lo beneficioso del proyecto pero en ningún caso se habla de consultar a la gente que va a usar ese espacio. Solo se destaca que va a ir acorde al diseño de la Kultur Etxea, que se amplían espacios para las personas y que se suprimirán “barreras visuales”. ¿Se consideran los columpios para los niños y niñas “barreras visuales”? Y por tanto, ¿se les da el mismo valor que a las macetas que se van a eliminar?

Gure ustez, diseinu horrek “auzoaren biziberritzea bultzatuko duela eta inguru horretan aberastasuna sorrarazten lagunduko duela” dioten esaldien bezalakoak zalantzazko errealitate batean oinarritzen dira, eta benetan guztiz kontrakoa lortuko da: plaza bizitzarik gabe uztea, beren nahira erabil dezaketen umerik gabe, eta plaza behar bezala aprobetxatzeko helduak erakartzen dituen ezer barik.

Creemos que frases como que este diseño “potenciará la revitalización del barrio contribuyendo a la creación de riqueza en el entorno” se basan en una dudosa realidad, y que lo que se va a conseguir es todo lo contrario: dejar sin vida la plaza, sin niños y niñas que puedan usarla a su gusto, y sin nada que atraiga a adultos/as para que la puedan aprovechar adecuadamente.

Hori guztia dela eta, honako ERABAKI-PROPOSAMEN hau aurkeztu nahi diogu osoko bilkurari:

Por todo ello, traemos a este pleno la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

1. Proiektua gizarteratu eta/edo jendaurrean erakutsi ostean, jendeak parte hartzeko prozesua egitea, auzoan bizi diren herritarrek beren burua adierazi ahal izateko eta proiektuari ekarpenak egiteko, hori egikaritu aurretik.

1. Que tras socializar y/o exponer públicamente el proyecto, se haga un proceso de participación ciudadana para que los vecinos y vecinas del barrio puedan expresarse y aportar al proyecto antes de que éste se ejecute.

2. Parte hartzeko prozesu bat burutzea, proiektu hori etorkizunean egingo den Xake Plazaren birmoldaketarekin erlazionatzeko erari, moduari, diseinuari eta abarri buruz

2. Que se diseñe un proceso participativo para que los getxoztarras se pronuncien respecto a la forma, modo, diseño… en que debe relacionarse este proyecto con la futura

getxoztarrek daukaten iritzia azaltzeko.

**30.- GUK UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ZORU-KLAUSULAREN BERRI GETXOZTARREI EMAN.**

Enrique Olasok ondorengo mozioa irakurri du:

2016ko abenduaren 21a egun zoriontsua izan zen banku-erakundeen abusu eta gardentasun-faltagatik ukitutako herritar guztientzat. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (EBJAk) epaitza eman zuen, eta adierazi zuen abusuzko zoru-klausulak betez bidegabe kobratutako zenbatekoa osorik itzuli behar zela, ez soilik 2013. urtetik aurrera kobratutako zenbatekoa, Auzitegi Gorenak ebatzi bezala.

EBJAren epaiaren ostean, egoera, zirudienez, oso argia zen: bankuek bazekiten zeri egin behar zioten aurre eta bi aukera zituzten, bezeroei bidegabe kobratutako zenbatekoa itzultzen zuten borondatez edo bezeroek zenbateko hori eskatuko zieten judizialki. Herrialde normal batean, bankuek legea beteko lukete berehala, baina gurea ez da herrialde normala eta, horregatik, egun horietan aztertu zen azken aukera bankuek borondatez legea betetzearena izan zen.

Bankuen ez-betetze hori orokorra izan zen eta oraindik ere bada, erakundeek legezkotasunaren nahiz kontsumitzaileen eskubideen defentsan esfortzu berezia egitea eskatzen duena; horren aurrean Alderdi Popularraren Gobernuak ez luke 1/2017 Errege Lege Dekretua eman izan beharko. Errege dekretu horren ezaugarri aipagarri bakarra zoru-klausulen abusuari

remodelación de la Plaza del Ajedrez.

**30.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL GUK S/ASESORAMIENTO A GETXOZTARRAS SOBRE CLÁUSULAS SUELO.**

Enrique Olaso da lectura a la siguiente moción:

El 21 de diciembre de 2016 fue un día feliz para la ciudadanía afectada por los abusos y la falta de transparencia de las entidades bancarias. El Tribunal de Justicia de la Unión Europea (TJUE) había fallado que lo indebidamente cobrado en virtud de las abusivas cláusulas suelo debía devolverse íntegramente y no sólo desde el año 2013, como en un primer momento declaró el Tribunal Supremo.

Tras la sentencia del TJUE la situación era, aparentemente, muy clara: los bancos ya sabían a qué atenerse y o bien devolvían voluntariamente el dinero indebidamente cobrado a sus clientes, o bien estos se lo exigirían judicialmente. En un país normal los bancos habrían procedido a cumplir la ley inmediatamente, pero el nuestro no es un país normal, y por eso la última posibilidad que se contempló esos días fue la de que los bancos cumpliesen voluntariamente la ley.

Un incumplimiento generalizado de los bancos, que se daba y aún se da, exige un esfuerzo especial por parte de las instituciones en defensa de la legalidad y de los derechos de los y las consumidores y consumudoras, y no, como ha hecho el Gobierno del Partido Popular, en dictar el Real Decreto Ley 1/2017. Real Decreto cuya única característica reseñable es que dulcifica

lotutako banku eta erakundeen prozesu-kostuen araubidea leuntzen duela da; argi dago hori kontsumitzaileen kalterako dela eta, seguru asko, bankuen jardun deitoragarriagatik ukituak izan direnei gogoak kenduko dizkie erreklamazio legitimoak egiteko.

el régimen de costas procesales para los bancos y entidades relacionadas con el abuso de las cláusulas suelo, en claro perjuicio de los y las consumidores y consumidoras, y que, muy probablemente, desincentive las legitimas reclamaciones de quienes se han visto afectados por un deplorable actuar de los bancos.

Gure aburuz, Getxoko Udala, getxoztarrengandik gertuen dagoen administrazioa den aldetik, ezin daiteke geldi geratu abusu horren aurrean; kontsumitzaileen alde jarri behar da, eta ez bankuaren alde. Horrenbestez, premiazkoa da herritarrei aholkularitza emateko ezohiko zerbitzua ezartzea, bankuari bidegabe ordaindutako dirua berreskuratzeko jarraitu beharreko urratsen berri emate aldera. Aholkularitza horrek, halaber, hipotekako gastuak erreklamatzeko aukera hartu beharko du barne.

Entendemos que el Ayuntamiento de Getxo, como administración más cercana a los y las getxoztarras, no puede quedarse impasible ante este abuso y debe ponerse del lado de los y las consumidoras y no de la banca, por lo que urge establecer un dispositivo extraordinario de asesoramiento para informar a la ciudadanía de los pasos a seguir para recuperar el dinero injustamente pagado a la entidad bancaria, asesoramiento que deberá extenderse, además, a la posibilidad de reclamarse los gastos hipotecarios.

Hori guztia dela eta, honako ERABAKI-PROPOSAMEN hau aurkeztu nahi diogu osoko bilkurari:

Por todo lo expuesto, elevamos a este pleno la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

1. Getxoko udaletxeko osoko bilkurak gobernu batzordea premiatzen du KIUB zerbitzua erabiliz, kontsumo zuzenbide gaietan aholkatzen jarrai dezan eta konkretuki, hipoteka-produktuetan, Kontsumodibe-rekin elkarlanean (zoru-klausula, hipoteka eratze gastuak, eta abar). Gainera: i) horretarako beharrezkoak izan daitezkeen baliabide ekonomiko zein materialak aztertuko ditu; ii) Informazio kanpaina espezifikoa bultzatuko du, getxoztar guztiek, Udaletxeak, gai honekin erlazionaturik, esleitzen dituen baliabideen berri izan dezaten. Informazio hau indarrean dagoen araudiari egokituta egongo da beti.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta a la Comisión de Gobierno a que, utilizando el servicio OMIC, continúe asesorando y aconsejando en cuestiones de consumo y, más concretamente y en colaboración con Kontsumodibe, sobre los productos hipotecarios (cláusulas suelo, gasto de constitución de hipoteca, etc.). Además de ello: i) analizará los medios tanto económicos como materiales necesarios para ello; ii) promoverá una campaña informativa específica para que todos los ciudadanos de Getxo conozcan los medios que asigna el Ayuntamiento en relación a este tema. Esta información estará siempre adecuada a la normativa en vigor.

2. Getxoko udaletxeko osoko bilkurak gobernu batzordea premiatzen du KIUB zerbitzuaren bitartez, zoru-klausulak eta hipoteka gastuak direla eta eska daitezken zenbatekoen estimazioa erraztera, zerbitzua erabiltzen duten afektatu guztiei.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta a la Comisión de Gobierno a que, utilizando el servicio OMIC, facilite a todos los afectados que utilicen el servicio la estimación de las cifras que se pueden solicitar en las cuestiones de las cláusulas suelo y los gastos de hipoteca.

3. Getxoko udaletxeko osoko bilkurak gobernu batzordea premiatzen du, Getxon dauden banku bulegoetako zuzendari guztiekin bilera deitzeko, bakoitzaren jarrera ezagutzeko eta beraien kabuz zoru klausulak eta hipoteka gastuak berreskuratzeko prozedurak martxan jar ditzaten.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta a la Comisión de Gobierno a que convoque una reunión con todos los directores-as de las oficinas bancarias existentes en Getxo a los efectos de conocer la actitud de todos ellos y para que por su cuenta pongan en marcha los procedimientos para recuperar las cláusulas suelo y los gastos de hipoteca.

Ibon Rodriguezek zuzenketa transakzional bat aurkeztu eta irakurri du:

Ibon Rodríguez presenta una enmienda transaccional a la que da lectura:

*"1. Getxoko udaletxeko osoko bilkurak gobernu batzordea premiatzen du KIUB zerbitzua erabiliz, kontsumo zuzenbide gaietan aholkatzen jarrai dezan eta konkretuki, hipoteka-produktuetan, Kontsumodibe-rekin elkarlanean (zoru-klausula, hipoteka eratze gastuak, eta abar). Gainera: i) horretarako beharrezkoak izan daitezkeen baliabide ekonomiko zein materialak aztertuko ditu; ii) Informazio kanpaina espezifikoa bultzatuko du, getxoztar guztiek, Udaletxeak, gai honekin erlazionaturik, esleitzen dituen baliabideen berri izan dezaten. Informazio hau indarrean dagoen araudiari egokituta egongo da beti.*

*"1. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta a la Comisión de Gobierno a que, utilizando el servicio OMIC, continúe asesorando y aconsejando en cuestiones de consumo y, más concretamente y en colaboración con Kontsumodibe, sobre los productos hipotecarios (cláusulas suelo, gasto de constitución de hipoteca, etc.). Además de ello: i) analizará los medio tanto económicos como materiales necesarios para ello; ii) promoverá una campaña informativa específica para que todos los ciudadanos de Getxo conozcan los medios que asigna el Ayuntamiento en relación a este tema. Esta información estará siempre adecuada a la normativa en vigor.*

*2. Getxoko udaletxeko osoko bilkurak gobernu batzordea premiatzen du KIUB zerbitzuaren bitartez, zoru-klausulak eta hipoteka gastuak direla eta eska daitezken zenbatekoen estimazioa erraztera, zerbitzua erabiltzen duten afektatu guztiei.*

*2. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta a la Comisión de Gobierno a que, utilizando el servicio OMIC, facilite a todos los afectados que utilicen el servicio la estimación de las cifras que se pueden solicitar en las cuestiones de las cláusulas suelo y los gastos de hipoteca.*

*3. Getxoko udaletxeko osoko bilkurak gobernu batzordea premiatzen du, Getxon dauden banku bulegoetako zuzendari guztiekin bilera deitzeko, bakoitzaren jarrera ezagutzeko eta beraien kabuz zoru klausulak eta hipoteka gastuak berreskuratzeko prozedurak martxan jar ditzaten".*

Enrique Olasok onartu egin du zuzenketa transakzionala, GUKen izenean.

Koldo Iturbek hitza hartu, eta azaldu du mozioak eskatzen duena dagoeneko egiten ari dela Kontsumitzaileen Informaziorako Bulegoaren eta Kontsumobideren bidez, eta zuzenketa transakzional bat proposatu du, zeinean jasotzen baita Bilboko udalaren Osoko Bilkurak aho batez hartu zuen erabakia. Zuzenketa gobernu-taldearen izenean aurkeztu du.

*"Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak dei egiten dio Gobernu Batzarrari, Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoaren (KIUB) bitartez, kontsumo eskubideei buruzko orientazioa eta informazioa ematen jarrai dezan eta zehazki hipoteka-produktuei buruz, Kontsumobiderekin lankidetzan (Zoru-klausulak, hipoteken eratze gastuak…) horrez gain informazio kanpaina berezi bat zabaltzea Getxoko herritarrek jakin dezaten Udalak gai honetan bere esku jartzen dituen baliabideak. Informazio hau beti egongo da indarrean dagoen araudi eta irizpideen menpe".*

Enrique Olasok, GUKen izenean, esan du ez duela onartzen zuzenketa.

Eduardo Andradek adierazi du PP abstenitu egingo dela, eta gertuago daudela gobernu-taldeak aurkeztutako zuzenketatik. Amaitzeko, esan du

*3. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta a la Comisión de Gobierno a que convoque una reunión con todos los directores-as de la oficinas bancarias existentes en Getxo a los efectos de conocer la actitud de todos ellos y para que por su cuenta pongan en marcha los procedimientos para recuperar las cláusulas suelo y los gastos de hipoteca".*

Enrique Olaso admite la enmienda transaccional en nombre de GUK.

Koldo Iturbe interviene para indicar que lo que solicita la moción es algo que se está realizando a través de la Oficina de Atención al Consumidor, a través de Kontsumobide y plantea una enmienda transaccional que recoge el acuerdo unánime adoptado por el Pleno del Ayuntamniento de Bilbao. Presenta la enmienda en nombre del equipo de gobierno.

*"El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta a la Junta de Gobierno a que, a través de la Oficina Municipal de Información de las Personas Consumidoras y Usuarias (OMIC) se siga orientando y asesorando en temas de derecho de consumo y, concretamente, en productos hipotecarios, en coordinación con Kontsumobide (Clausulas suelo, gastos de constitución de hipoteca…) además de diseñar e impulsar una campaña informativa específica para que la ciudadanía de Getxo tenga conocimiento de los recursos que este Ayuntamiento pone a disposición de la misma sobre esta materia. Esta información en todo momento estará adecuada a las directrices y a la normativa en vigor".*

Enrique Olaso, en nombre de GUK, dice que no acepta la enmienda.

Eduardo Andrade manifiesta que el PP se va a abstener y que están más de acuerdo con la enmienda presentada por el equipo de gobierno. Finaliza

herritarrei euren eskubideen berri ematearen alde daudela.

indicando que apoyan que se informe a los vecinos de sus derechos.

Enrique Olasok jakinarazi du bere taldearen helburua dela akordioa bilatzea, mozio bat aurkeztu zutela eta atzo jaso zituztela EH Bilduren proposamena eta gobernu taldearena, eta eskertzen dituela proposamen horiek. Bat datozen puntu bat bilatzen saiatu dira, baina betiere mozioak izan beharreko oinarrizko ezaugarriak jasotzen baziren. Baterako testu bat egiten saiatu dira, baina azkenean onartu dute zuzenketa bat bestearen kaltetan. Beraien ustez, mozioek jaso behar dute herritarren eskubideei buruzko informazioa. Udalak egoeraz duen ikuspegia, KIUBen esku-hartzea, eta errefortzuak behar izanez gero, eta bankuek egoera honetan duten erantzukizuna ere eskatu behar da. Datuak eman ditu zer jarduketa egiten ari diren kontsumitzaileen bulegoak indartzeko zenbait instantzia eta udalerritan, gertatzea aurreikusten diren erreklamazio eta kontsulten aurrean. Uste dute dei egin behar zaiola bankuen gizarte-erantzukizunari, haiek izan baitira erabiltzaileek erreklamazioak jarri behar izatearen erantzuleak. Arazo hori eragin duen bankuen jarduera horrek ekarriko du baliabide publiko asko kontsumitzea, ordenamendu juridikoan zein informazio-zerbitzuetan, bankuak erreskatatzeak eragin zuenaz gain. Beraren ustez udalak parte hartu behar du kultura sozialaren aldaketan.

Enrique Olaso informa que el objetivo de su grupo es buscar el acuerdo que presentaron una moción y ayer recibieron la propuesta de EH Bildu y la del equipo de gobierno, propuestas que agradece. Han tratado de encontrar un punto común pero siempre que se recogieran unas características básicas que debe mantener la moción. Han intentado trabajar en un texto conjunto pero al final han asumido una enmienda en detrimento de la otra. Cree que las mociones deben recoger la información de los vecinos acerca de sus derechos. La situación desde el ayuntamiento, la intervención de la OMIC y sus refuerzos si es necesario y también debe de solicitarse la responsabilidad de los bancos en esta situación. Da datos de actuaciones de reforzamientos a oficinas del consumidor que se están dando en diferentes instancias y municipios ante las pevisibles reclamaciones y consultas que se van a producir. Creen que es necesario realizar un llamamiento a la responsabilidad social de la Banca que ha sido la responsable de que los usuarios tengan que presentar las reclamaciones. Esta actuación de la Banca que ha generado este problema va a producir el consumo de grandes recursos públicos, tanto en ordenamiento jurídico, con servicios de información, además de los que ya supuso el rescate de la Banca. Cree que el ayuntamiento debe intervenir en cambiar la cultura social.

Koldo Iturbek azaldu du aurkeztutako proposamen guztiak kontsumitzaileen aldekoak direla, eta aurkeztu duten testua Bilboko Udalean onartu zela, eta ez duela ulertzen zergatik ezin den onartu Getxon. KIUB aholkatzen ari da,

Koldo Iturbe indica que todas las propuestas que se han presentado están a favor de los consumidores y que han presentado un texto que se aprobó en el ayuntamiento de Bilbao y no entiende porque aquí en Getxo no es posible.

Kontsumobiderekin elkarlanean, baita Urkoa Kontsumitzaileen Elkartearekin ere. Jendeari jakinaraziko diote zer zerbitzu eman ditzakeen KIUBek, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Desde la OMIC se está asesorando en colaboración Kontsumobide y también con la Asociación de Consumidores Urkoa. Van a informar a la gente de los servicios que puede prestar la OMIC para que puedan formular reclamaciones.

Ibon Rodríguezek, ikusita gobernu-taldeak ulertzen ez duela zergatik ezin den lortu Bilboko erabakiaren moduko bat, eta PPk adierazi duela erosoago zegoela gobernu-taldearen proposamenarekin, azpimarratu du hauxe dela ezberdintasuna: aurkeztu duten mozioan bankuak aipatzen dira, eta, berriro esan du, horiek irabazi dute krisiarekin, eta beren jarduerarekin herritarrei kalteak eta kostu publiko handiak eragin dituzte, eta, gainera, diru gehiago gastarazten dio administrazioari herritarrak aholkatzeko bankuek eragindako kalteei aurre egin ahal izan diezaieten. Adierazi du bankuek jarraitzen dutela praktika onartezinak egiten, eta hori esan beharra dagoela, bankuei oztoporik ez egiteko politika egin beharrean.

Ibon Rodíguez ante la falta de comprensión del equipo de gobierno de por qué no se puede llegar a un acuerdo como en Bilbao y también la manifestación del PP, que con la propuesta del equipo de gobierno se sentía más cómodo, se reafirma en que la diferencia está en que la moción que se presenta hace referencia a la Banca e insiste que es la que ha ganado con la crisis y ha generado un gran coste público y daños con su actuación a la ciudadanía y que además obliga a la administración a gastar más dinero público para asesorar a la ciudadanía para hacer frente a los daños que han generado. Manifiesta que la Banca sigue con prácticas inasumibles y que eso hay que indicarlo y no adoptar una política de no molestar a la Banca.

José Luis Landak esan du Getxon nahikoak izaten ari direla KIUBen baliabideak Kontsumobideren laguntzaz. Ez diote beldurrik bankuei. Zuzenketa transakzionalari onartezin deritzo, haien ustez, eta barregarria iruditzen zaie hirugarren puntuan jada, proposatzen baitu Udalak dei egitea banku guztietako zuzendariei, ez sukurtsaletakoei, zer egin behar duten adieraz dezaten: gobernu-taldeak ezinezko deritzo proposamenari horri.

José Luis Landa indica que en Getxo los recursos de la OMIC con Kontsumibide están resultando suficientes. No tienen miedo a los bancos. La enmienda transaccional le parece inasumible y ya en su punto tercero le parece gracioso, ya que pretende que se convoque desde el Ayuntamiento a los directores de todos los bancos, no de las sucursales, para que manifiesten qué es lo que van a hacer, cuestión que le parece imposible al equipo de gobierno.

Eduardo Andradek adierazi du akordio bat lortzeko ezin dela proposatu alderdi politiko jakin bati espresuki erasotzen dioten paragrafoak dituen proposamen bat. Beharrezko irizten dio

Eduardo Andrade manifiesta que para llegar a un acuerdo no puede plantearse una moción en la que haya párrafos que expresamente ataquen a un partido político. Le parece necesario

herritarrei beren eskubideen gainean informatzeari, baina abstenitu egingo dira mozioan.

que se informe a los vecinos sobre sus derechos pero que se abstendrán en la moción.

Santiago Sainzek adierazi du ezagutzen duela zoru-klausulen problematika, eta horregatik Ciudadanosek bultzatu zuen 1/2017 Errege Dekretua onartzea, kontsumitzaileei beren eskubideak defendatzen laguntzeko baina auzitegiak kolapsatu gabe, eta dekretuaren edukia azaldu du. Beraren ustez, udalak etxebizitza-zerbitzu integral bat eskaini beharko luke, eraikuntzaren zein zergen, legeen, eta abarren alderdiak ere jorratzeko.

Santiago Sainz manifiesta que conoce la problemática de las cláusulas suelo y por ello Ciudadanos motivó que se aprobara el Real Decreto 1/2017, que busca favorecer a los consumidores en la defensa de sus derechos sin colapsar a los tribunales, dando cuenta del contenido de dicho decreto. Cree que desde el ayuntamiento debiera ofrecerse un servicio integral de vivienda que abordara tanto aspectos constructivos, como fiscales, legales, etc.

Enrique Olasoren iritziz, gizarteak hainbat kontu aldatu beharra du, ekonomiaren etika, besteak beste. Uste du adostasuna dagoela herritarrei informazioa eman beharaz, baita KIUBen atenditzeaz ere. Aurreraxeago joan behar dela uste dutenez, Bilboko udalean onartu zenaz harago joatea proposatu dute. Amaitzeko, adierazi du etikaz jokatzea ez dela kaltegarria bankuentzat, baina ez dutela irizpide etikoekin jokatu ohi.

Enrique Olaso estima que la sociedad tiene que cambiar algunas cuestiones como la ética de la economía. Opina que hay acuerdo en que se tenga que informar a los ciudadanos además de que se les atienda en la OMIC. Estima que hay que avanzar algo más y por eso plantean un avance sobre lo acordado en el ayuntamiento de Bilbao. Finaliza indicando que actuar éticamente no es negativo para los bancos, aunque no actúan habitualmente con criterios éticos.

Mozioa bozkatu da, eta ez da onartu, aldeko 7 boto jaso dituelako (GUK eta EH Bildu), 11 boto kontra (EAJ eta PSE-EE), eta 6 abstentzio (PP eta Ciudadanos).

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 7 votos a favor, GUK, EH Bildu; 11 votos en contra, PNV, PSE-EE; 6 abstenciones, PP, Ciudadanos.

**31.- GETXO-EH BILDU ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: "GUERNICA" GERNIKARA.**

**31.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/EL "GUERNICA" A GERNIKA.**

Oier Iturraldek mozioa irakurri du.

Oier Iturralde da lectura a la moción.

Enrique Olasok hitza hartu, eta jakinarazi du GUK taldeak mozioaren

Enrique Olaso interviene para indicar que GUK apoyará la moción, aunque

alde egingo duela, nahiz eta faltan nabaritu aipatzea Bigarren Errepublikako gobernuak enkargatu zuela Guernica egitea. Euren ustez, koadroa sinbolo unibertsala bihurtu da, ez bakarrik Gernikarena. Nabarmendu du memoria berreskuratu beharra, eta koadro horren aurrean onena dela isiltzea eta gogoeta egitea zer adierazten duen, nork enkargatu zuen, eta zer transmititu nahi diogun belaunaldi berriei.

echa en falta que no se indique que fue el gobierno de la segunda República el que encargó la realización del Guernica. Creen que el cuadro se ha convertido en un símbolo universal, no solo de Gernika. Insiste en la necesidad de recuperar la memoria y ante ese cuadro lo mejor es callarse y reflexionar ante lo que representa, sobre quién lo encargó y sobre lo que se quiere trasladar a las nuevas generaciones.

Teresa Escalantek hitza hartu du eta adierazi du Guernica lekualdatzea ez dela borondate politikaren arazoa, teknikoa baizik, aditu gehienek horrela adierazten baitute; eta aipatu du MOMAko zuzendariak arestian emandako iritzia, zeinak Reina Sofiatik Pradora ez lekualdatzeko ere aholkatzen baitu. Azpimarratu du Guernicaren mezuaren garrantzia, eta nola enkargatu zuen Bigarren Errepublikak, eta beraz ondare nazionala dela. Gogorarazi du egileak eskatu zuela Prado Museoan erakusteko. Kritikatu du mozioaren txokokeria eta zenbait pasartek lotzen diola haren edukia artelanaren errealitatearekin bat ez datorren istorio bati, espainiar guztien ondarea baita, errepublika defendatu zuten espainiarrena batik bat, eta ez bakarrik euskal herritarrena, eta gero bihurtu baita munduan askatasuna defendatzen duten guztien ondarea. Horregatik, kontrako botoa emango dute.

